

I-A-4 (16)

150

FUNDACION
SABIO

# JESUS'en BIYOTZAREN
## MAITALE ZINTZUA.

NÚM. 20.



Jesus'en Biyotz biguña, egin zazu neria zurearen antzecoa.

M-8563 / R-36231 ATV 18344

# Jesus'en Biyotzaren maitale zintzua

BERTAN DAUDE

Goiz ta arratseco otoitzac, Meza santua, gurutze-bide pecatuen aitortze ta Jaun-artzeco bidea, bezperac, errosariyoa,

Jesus'en Biyotzari esqueñitaco Garagarrilla, errosariyoa, bederatzi ostiralen jarduera ta bederatziurrena,

Jesus Sacramentatuari bost aguertaldi, ill bacoitzeco lenbizico ostiraleraco Jesus'en Biyotzaren izenian jarduera, ostegun-ostiraletaraco pasiyoco erlojuba eta beste otoitz asco.

Lopez eta Mendizabal'tar Isaac'ec ipiñiyac.

BENEDICTINOS · PP. BENEDICTINOS - LAZCANO

Tolosa'n
E. Lopez'en etxian
1912.

Eguillearena da.

*

OBISPADO

DE

VITORIA.

—•—

En vista de la censura favorable que el Devocionario titulado "Jesus'en Biyotzaren maitale zintzua" ha merecido al M. I. Sr. D. Mateo Múgica Canónigo Lectoral de esta Santa Iglesia Catedral, comisionado por Nos para el exámen del citado Devocionario que V. ha ordenado y arreglado, le concedemos nuestra licencia para que la pueda imprimir y publicar.

Dios guarde á V. muchos años.

Vitoria 13 de Febrero de 1912.

† El Obispo de Vitoria.

*Sr. D. Isaac López Mendizabal.*

*TOLOSA.*

*

# CRISTAU ONAREN GOIZA.

*Irucoitz txit Santuari Otoitza.*

Bedeincatua izan bedi Irucoitz guztiz doatsua, Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru persona banaroac eta eguizco Jaungoico bat: nere ibillerac zuzendu itzazu, gaitz guzietatic gorde, ta

Ama Birjiñaren bitartecotasunaren bidez zerua iritxi dezadan. Ala izan bedi.

### Goizeco Otoitza.

Jesucristoc Aita Beticoari otoitza belaunicaturic eguin bazion, ¿nola jarri bearco da pecataria Jaunaren aurrean, bera adoratzeco?

Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenian. Alaxen.

## Adoraziozco Eguintza.

¡Nere Jaungoicua! zure aurrean nic, gauza guziyen jaun ta jabetzat ezagutzen zaitut; eta bear dan begirapen guziyaz ezpada, al dedanaz beintzat, adoratzen zaitut.

## Etxetic ateratzean.

Jauna, nere ibillerac zuzendu itzazu, eta ez nazazula utzi zugandic pecatuaz aldentzen.

### *Elizan sartzean.*

Jauna, zure etxe santuan sartu naiz; eta zure izena adoratuco det.

### *Ur bedeincatua artzean.*

Ur bedeincatu au nere pecatuen barcapeneraco izan dedilla.

### *Jesus Sacramentatuaren aurrean arquitzean.*

Nere Salbatzalle, sacramentu ontan ziñez arquitzen ze-

rala sinisten det: biotz guziz maite zaitut.

**Gaxo batentzat Elizacuac igarotzean.**

Zu zera Cristo, Jaincoaren semia: zure mendeco gaxo arquitzen dana begira zazu, ta gure azquen-garayan zure gorputz santua artzea iritxi zaiguzu.

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

**Lanen bati asiera ematian.**

Jauna, zure ain-

tzaraco, ta nere pecatuen barcapeneraco lan au esqueintzen dizut.

*Aita guria, Agur María ta Gloria.*

### Erlejuac ordua jotzean.

Nere Jauna, nitzaz cupida izazu, eta zure bildur santuan bizi eta il nadilla egizu.

### Pecatuan erortzeco zoriyan arquitzean.

Nere Jauna, neri laguntzera atoz: pecatuan erori ez na-

din, gorde nazazu. Ala izan dedilla.

*Pecatuan erortzen danian.*

---

Nere Jauna, nitzaz erruqui zaite: zuri calte egiña, biotz guziz damu det, eta zure laguntzaz pecatuan ez gueyago erortzea, eta gaiztaqueri guzietatic aldentzea escaintzen dizut.

*Ondoezic arquitzen danian.*

---

Nere Jauna, gaitz onetan lagundu zai-

dazu, eta zuc nai dezuna eguin bedi.

*Norbaitec gaitz eguin digunian.*

Nere Jauna, nic barcatzen diot eta zure naitasunagatic biotz guziz maite det: artzaz eta nitzaz erruqui zaite.

*Mayaren bedeincapena.*

Jauna, artzera guazen janaria bedeinca zazu, ta bear adiña artu dezagula eguizu, zure gogo

santua eguiteco. Jesucristo gure Jaunaren izenian.

*Bazcal-ondoan Jaunari eman biar zaizcan esquerrac.*

---

Jauna, artu ditugun janariyagatic esquerrac ematen dizquitzugu; gueyeguiric eguin badegu barca zaguzu, ta gure animen betico janaria izan zaite. Alaxen.

*Ezquillac jotzean Otoitza.*

---

Jaunaren Ain-

gueruac Mariari berri ona eman zion:

Eta Espiritu Santuaren eguitez aurdun arquitu zan.

*Agur Maria.*

Ona emen Jaunaren mirabia:

Eguin bedi nigan zuc diozun bezela.

*Agur Maria.*

Jaungoicoaren Semia guizon eguin zan:

Eta gure artian bizi izan zan.

*Agur Maria.*

## Otoitza.

Jauna, laguntza iguzu, ainguerual adieraziric Jesucristoren guizontzea ezagutu degunoc, zure neque eta gurutzearen bidez betico zerua iritxi dezagula. Jesucristo gure jaunaren izenian. Alaxen.

## Ama Birjiñaren agurra.

Agur, Maria, Jainco Aitaren alaba. Agur, Maria, Jain-

co Semiaren Ama. Agur, Maria, Espiritu Santu Jaincoaren emaztea. Agur Maria, Irucoitz txit santuaren Eliz ta gordetoquia. Agur, Maria, sortzetic garbia. Alaxen.

### *Oyeratzean.*

Jauna, nere anima zure escuetan ipintzen det; pecatutic eta bat-batetan iltzetic gorde nazazu.

## Maria Ixil Santuari Otoitza.



Maria biotz biguña, pecatarien gordelecua; zure laguntza escatzen dizugu: gaitz guzietatic zure magalean gordegaitzazu, Ama biguña, Jaincoarequin paqueac eguin arte gure alde beti escatu ezazu.

*

## *Jesus gure Erosleari otoitza.*



Pecatarien ordez il ziñan Jaungoico biziaren seme Jesus erruquitsua! ta nolaco eriotza!... gurutze batean, eta bi lapurren erdian. Biotz guziac, onac badira maitatu biar zaituzte!

## Jesusen Jaincozco Biotzari Otoitza.



Jesusen biotz biguña! Betico Aitac aguertu zigun gure otoitzac beti entzungo zituala, esanaz: *Nere maite Jesusen biyotzari esca zayozu; biyotz onegatic entzungo dizut, eta escatzen dezun guzia escuratuco dezu.* Nic zure bitartecotasunaz nai nuqueana iristeco, nere escari

guziac Betico Aitari eguiten dizcat. ¡O Jesusen biotza! Nere escariac escuratu zaizquidatzu, Jaincoaren aintzaraco eta nere animaren oneraco badira. Alaxen.

*Erroque Santuari Otoitza.*



Jaincoac ainbeste lagundu dizun Santua! Zure ontasun aundi eta irazequiyagatic izurriyaren aurrez gu-

re bitartecoa izan zaite, gaitz icaragarri ori gugandic aldendu dedin, eta bera gabe gu ta gure etxecuac arquitu gaitezen. Zure oñetan belaunicaturic escatzen dizugu..... Gure besoac Zuri luzatzen dizquitzugu..... gutzaz errucaizaite...lagun zaiguzu!

---

## *Ainguerú Zaitzalle Santuari Otoitza.*



Jauna, jaquintasun aundiaz gure laguntzaraco ainguer-uac ipiñi zinduan. Neri ipiñiyac beti lagundu deguidan laguntza indazu. Jesucristoren irabazpenacgatic. Alaizan dedilla.

## Izeneco Santuari Otoitza.

Zeruan Jaungoicoarequin arquitzen zeran N. santu gloritsuba; zure izena ziquindu ez dezadan, Jaunaren aurrian nitzaz oroitu zaite, eta zu iritxiziñan cayera iristea irabazi ta zuc iritxi dezun guzizco zorion orretzaz izan dezadan. Alaxen.

## Purgatorioco animen aldez Otoitza.

Jesus biyotz bi-

guña, ildacoen animai begui onez beguira zayezu. Zure odol ederra ixuriaz eta gurutzeco miñac artuaz oyegatic il ziñalaco. Alaxen.

*Jose Santuari Otoitza.*



Zorioneco Jose, birjiñen erreguiñaren senar berdingabea! nere aita, nere lagun ta nere ibille-

ren zuzentzalle izan zaite; zureen antzera eguizu, nere eguiquera guziac, Jaungoicoaren gorapeneraco, nere pecatuen barcapeneraco ta Jesus eta Mariaren biyotz garbiyen caltez eguin diran gauzac ordaintzeco izan ditezela; nere biziyaren egun guzietan, eta batez ere azqueneco garayan lagun zaidazu. Alaxen.



Carmengo Ama Birjiñari Otoitza.

¡Nere Jaungoicoa! zure aitorle zorioneco Simeonen escariagatic, eta zure seme Jesucristoren

Amaren bidez Carmelo mendico Launquidari esquer aundi eder bat eman ziozuna: Santu orren ta Birjiñaren bitartez, Zu maitatzen zaituztenac iristen duten betico zoriona iritxi dezagula eguin ezazu. Au guzia gure Jaun Jesucristoren irabaziyen bidez zurequin beti bizitzeco escatzen dizugu. Alaxen.

*Aita guria, Agur Maria ta Gloria Patri.*

## *Sinispen, Itxodopen ta Maitetasunezco Eguintzac.*

Nere Jaungoicoa! Egui bera zeralaco, zugan sinisten det. Guziz ona zeralaco, zugan itxodoten det. Neurri gabe ona ta maitagarria zeralaco, gauza guztiac baño gueyago maite zaitut.

Zure maitetasunagatic, nere urco laguna nere burua bezela maite det. Alaxen.




*Paduaco Antonio Santuari Oloitza.*

---

Gure aita Antonio Santuari, bere maitatzalleac galdu dituzten gauzac arquitzeco esquerra

emanziñiozunJaun ta Jaungoicoa, santu gloritsu oni ainbeste lagundu ziñiozulaco esquerrac ematen dizquitzut, ta bere bitartez pecatuan ez erortzeco, zure eracusquetac jarraitzeco, zure laguntza ez galtzeco, ta zori gaitzean galtzen badet, lenbaitlen irabazteco zeruco argui doatsua escatzen dizut.

# Meza Santua

*bear bezela entzuteco era.*

**Apaiza aldarera dijoanean.**

Adierazten du baratzaco otoitza.



Aitaren † Semearen † ta Espiritu Santuaren izenian † Alaxen.

Nere Jesucristo Jaun eta Jaungoicoa: Zuc otoi eguin zenduen Jetsemanico baratzan Betico Aitari escatuaz Pasiyoco neque oñazeac albait zu samindu gabe igaro zitezela, baña Aren gogora jartzen ziñala esanaz: Jauna, zure maitatzalle apal-

apala, neque guz-
tiac gogo onez
eramatecolagun-
tza escatzera na-
torquizu; ta ez
nuque nai iñolaz
nere gogoa egui-
tea, baizican zu-
rea bacarric.

*

## *Aitorpenian*

Adierazten du Cristo bere arpeguiaren gañean odola ixuriaz erori zala.



Meza entzuten dagoanac esango du **Ni pecataria...**

# Nere Jaungoicoa, zure legue

santuac ausi di-
tudala icusiaz,
nastua ta lotsa-
tua arquitzen
naiz. Jauna, bear
bada, nere ara-
guiac gogo onez
artu nai ez arren,
pecatuen barca-
peneraco neque
ta lanac biraldu
zaizquidazu.

## Introitoan.

Adierazten du Cristo Anas'en etxera eraman eta masalleco bat eman ziotela.



# Jesus maitea, nere buruaren gauz oquerrac

bear bezela eramateco, eta urco lagunaren iraiñac barcatzeco, zuc izan zenduen eramanquizunaren antzeco bat, escatzen dizut.

### *Kirieleisonean.*

Adierazten du Cristo eraman zutela Caifas'en etxera ta Pedro'c an ucatzen duala.



# Iguzu, Jauna, mundu onetan bizitzeco lagun-

tza, beti zu maitatuaz guero betico zoriona irabazi dezagun.

### *Gloria in excelsis'ean.*

Adierazten digu Jesus'en jayotzan cantatzen zutela Aingueru ta Goyangueruac.



DEBERNY

Cantatu dezatela, nere Jaungoicoa, zu-

re zoriona zeru-
an ainguerua c;
ta mundu oneta-
co guizon guziac
goratu dezatela
zure izen deuna.

## Epistolan.

Adirazten du Cristo Pilatos'en-
gana eraman zutela.



Nere Aita ta Jaungoicoa, zure icasleen e-

racusquetaz nere adimena zorroztu ta nere biotz illa berotu nai nuque.

## Ebanjelioan.

Adierazten du Cristo'z Herodes'ec par egin ondorean Pilatos'enera eraman zutela.



Iguzu, Jauna, mendiac ibiltzen dituan si-

nismena, ta onen alde egon eta ateratzeco bear dan biotza: ta orain iñoiz baño gueyago Eliz Ama Santua ta zure etsaien aurrean.

## *Credoan.*

Adierazten du Ebanjeliotik atera biar degun irakasbidea.



Meza entzuten daudenac esango dute: **Nic sinisten det...**

# Nic sinisten det Jaungoico

Aita, Jaungoico Seme eta Jaungoico Espiritu Santuagan iru persona bañan eguiazco Jaungoico bat, gauza on guzien emallea.

## *Ofertorioan.*

Adierazten du Jesucristo iltzera eskeñi zala.



Aita zerutar biotz biguña, ar zazu apai-

zac esqueintzen dizquizun osti garbi ta osasunezco calizarequin batean zuc zuretzat eguin zenduan nere biotza; bera nic gogoz ematen dizut zurea dalaco.

### Escuac garbitzean.

Adierazten du Pilatos'ec escuac garbitu zituala.



Garbitu nazazu, nere Salbatzallea, gar-

bitu nazazu gueyago oquer guzietatic, eta zuzendu itzatzu nere ibillerac damutasunaren bide garbitic.

## *Orate frates eta Prefasioan.*

Adierazten du Pilatos'ec erriya-ri Cristo eracutsiric esan zuela: «Ecce Homo,» Ona emen guizona.



# Escatu ezazu nere aldez, gu

re Eroslearen ama ona; escatu ezazute nere aldez, zeruan arquitzen zeraten zoriondunac, artaraco garaya iristen danean betico zoriona irabazi dezadan.

*Bizi diranen aldez apaizac escatzen duanean.*

Adierazten du Jesus iltzea erabaqui zutela.



# Oroi zaite, nere Jaungoicoa, nic dauzcadan

bear guziac, nic baño obeto ezagutzen dituzulaco eta zure biotz on ta zure indarraz zuzendu zaizquidazu. Oroi zaite, gañera, nere antzera, zure erruquitasunaren zai dauden beste ascoz.

### *Ostia jazotzean*

Adierazten du Cristo gurutzean goratua izan zala.



Orain eguiaz eta benetan nere aurrean zau-

den nere Jaungoicoa! Maitatzen zaitut osti santu orretan, eta nai nuque mundu guziac alaxen maitatzea.

### *Caliza jasotzean*

Adierazten du Cristoren zau-
rietatic ixuri zan odola.



Betico bizitza ematen duen o-dolean, orain e-

guiaz eta bene-
tan nere aurre-
an zauden nere
Jaungoicoa! Mai-
tatzen zaitut ca-
liz santu ortan
eta nai nuque
mundu guziac o-
nelaxen maita-
tzea.

### *Apaizac ildacoen aldez escatzen duanean.*

Adierazten du Cristoc gu guzion aldez escatzen duela.



# Beguira zayezu, Jauna, be-

gui onez zure maitatzalle izan ziran eta mundu ontaco bizi laburra galdu zutenen animai, ta gaur oñazez beteric garbitzen arquitzen diranai emen eguin zituzten gaitz ta pecatuagatic.

## *Pater noster'ean*

Adierazten ditu Cristo'c gurutzean esan zituan zazpi itzac.



Meza entzuten daudenac esango dute: **Aita gurea...**

# Jaungoico errruquitsu, ze-

ruetan zauden gure Aita, lagundu zadazu zure izena beti gogoratu ta zure gogoz betetzeco.

*Ostia ebaquitzean*

Adierazten du Cristo gurutzean il zala.



Linbora jetxiaz, urte ascotan zure zai

zeuden Guraso Santuac poztu ziñituan Jesucristo Jauna: poztu ezazu nere gogoa zeruan ayequin batean izateco. Alaxen.

BIBLIOTECA
DAX
P. P. BENEDICTINOS.-L...

## *Agnus Dei esatean*

Adierazten du Cristo gurutz-iltzatu zutenetic asco beren pecatuz damutu zirala.



# Nic escatzen diot Jaungoicoari nere peca-

tuen barcapena ta esqueintzen diot aurrerontzean oquerric ez gueyago eguitea.

### *Jaun'artzean*

Adierazten du Cristo lurperatu zutela.



Badaquit, Jauna, zein utsa naizen nere bu-

larrean zu artzeco; bañan, naizen bezela zurea naiz, Jauna; eta zuri esqueintzen naitzazu.

Nere Jesus atoz nigana, Aita ta Jauna bat bezela nai zaitut maitatu-ta.

## *Apaizac bedeincapena ematian.*

Adierazten du Espiritu Santuaren etorrera.



Aita Jaungoicoaren bedeincapena, eta o-

nen bidez |Seme Jaungoicoaren naitasuna ta Espiritu Santuaren esquerrac guganа jetxi ditezela. Alaxen.

## Azquenengo Ebanjelioan.

Adierazten du Cristo'ren Jaincotasunezco ta guizatasunezco misterioac.



# Jesus ona! Zure Jaincotasunezco miste-

rioen izenean es·
catzen dizut ez
nazazula utzi,
betico zoriona i-
ritxi dezadan.

Alaxen.

## Mezaren esqueintza.

Artu ezazu, Irucoitz guztiz santua, Jesucristo nere Jaunaren gorputz eta odolaren esqueintz au. Bere eriotzaren oroipenean esqueintzen dizut nere pecatu guzien barcapeneraco eta garbitoquian daude-

nac lenbailen zeruratu ditezen. Ala izan dedilla.

---

## MEZA SANTUAREN

### ondorengo otoitza.

---

XIII-garren Leon Aita Santuaren aguinduz 300 barcapen dituzte.

*Errezatzen dira iru Agur Mari ta Salbe bat.*

Escubide guziac dauzcazun Jaungoico guziz altsua, escatzen dizun erri oni arpegui onez beguira zayozu, eta Ama Birjiñ txit

garbi Jesusen Ama, bere senar doatsu Jose santua, Pedro ta Pablo apostolo doatsuen eta Santu guzien bitartecotasunez entzun itzazu erruqui aundiz zure oñetan pecatari guzien biurpeneraco ta gure Eliz Ama Santuaren zorioneraco ipintzen ditugun gure escariac. Cristo gure Jaunaren bidez. Ala izan dedilla.

Miguel goiainguerua, zaindu gai-

tzazu ta etsayaren eraso-aldien aurrean gure laguntzalle izan zaite; Jaincoac menderatu dezala, au da gure escaera laburra; eta zuc zesutar gudarien burua, inpernuetara sar-itzazu gure animen galmenaren billa beti dabiltzan Satanas eta bere lagun gaiztoac. Ala izan dedilla.

℣. Jesusen Biotz guziz doatsua.
℟. Gutzaz erruquia izan zazu.


INRI

✝

# GURUTZE-BIDE

## edo calbarioco eguipen Santua.

*Jesus ona, barcatu*
*Pecatu nereac:*
*Nic dizquitzut oyetan*
*Berritzen nequeac.*

### ESQUEINTZA.

Zure miñac nai ditut
Zurequin negartu,
Negar oyec ditzazun
Goguan zuc artu.
Nitzaz eta nereaz,
Jauna gogoratu,
Purgatoriyocoaz
Ezta ere aztu.



LENBIZICO GUELDIALDIYA.

**Jesus iltzea erabaqui dute.**

---

Jaungoico aundiyaren
Seme Jaungoicua,
Pilatos'en aquintez
Iltzera dijua.
¿Eta nic, berritubaz
Nere gaizqui equiñac
Berritzen ditut beti
Jesusen samiñac?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



BIGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus'ec bizcar gañean gurutzea darama.**

—

Sorbaldan dualaric
Bere gurutzea,
Jesusec artutzen du
Golgota-bidea.
¿Ez aldagoquit neri
Orri jarraitzea,
Nere bide oquerrac
Gaurtic zuzentzea?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



IRUGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus lenbizico aldiz lurrera erortzen da.**

---

Gurutze astunaz da
Jesus lurreratzen,
Lurretican zerura
Gu jasotze-arren.
¿Eta bertatic ez det
Nere griña charren
Bide guziz galduba
Utzico lenbaitlen?

*Aita gurea, Agur Mariya 'ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



LAUGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus'ec bere Ama chit santua arquitzen du.**

---

Erromatar soldadu
Ta judu artean,
Amac arquitutzen du
Carrica batean.
¡Eta nic samintasun
Anbaten artean,
Zaitut, Mariya, jartzen
Pecatu eguitean!

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



BOSGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus'i gurutzea eramaten laguntzen diote.**

Simon Zirinecoa
Zayo lagun eman,
Bildur dira, aldapac
Lenegui ill dezan.
¡O zer gogortasuna
Jesusi diodan,
Nere ordez josiric
Icusi nayean!

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



SEIGARREN GUELDIALDIYA.

**Veronica'c Jesus'i arpeguia garbitzen dio.**

Veronica'c garbitu
Ziyon arpeguiya;
Salbatzalleac diyo
Utzi ezarriya.
Eman zaidazu zure
Laguntza aundiya,
Biyotzean utziric
Bere iduriya.

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



ZAZPIGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus bigarren aldiz gurutzearequin lurrera erortzen da.**

Zeruben Erreguea
Berriro lurrera
Pecatuaren pixuz
Emen erortzen da.
¿Eta ni beti nabil
Gaitzetic gaitzera,
Aleguinduric gabe
Damuz jeiquitzera?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



ZORTZIGARREN GUELDIALDIYA.

**Jerusalen'go alabai itz eguiten diote Jesus'ec.**

---

Jerusalen'go alabac,
Ez nitzaz negarric,
Bai, zuben gain datozen
Zoriqaitzagatic.
Au badiyo Jesusec
Jerusalengatic,
¿Nola ez naiz esnatzen
Nere lo-zorrotic?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



BEDERATZIGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus gurutze santuarequin irugarren aldiz lurrera erortzen da.**

Irugarren aldiyan
Emen lurra jo du,
Badute nere oquerrac
Orrenbeste pixu.
Salbatzallea ziñez
Jaso nai badezu,
Zure utseguiteaz
Damu bear dezu.

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



AMARGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus'i soñecuac quentzen dizcate.**

---

Zeruba eta lurra
  Ditubena jazten,
Cupidarican gabe
  Dute erantzitzen.
¡Eta nic gaizbideac
  Ez ditut utzitzen!
¿Au icusiyarequin...
  Ez naiz damuz iltzen?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



AMAICAGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus gurutziltzatzen dute.**

---

Ezurrac azcaturic
  Beren guiltzetatic,
Zintzilic aguiri da
  Iru iltzetatic.
¿Eta ez det josico
  Nic nere biyotzic
Iñoiz aldendu ez dedin
  Jesus'enagandic?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



AMABIGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus gurutzean iltzen da.**

Illunic eguzquiya
Ta lurra dardaraz,
Bizitzaren jabea
Iltzen icusteaz.
¿Ez det bear arritu
Ni ez biguntzeaz,
Arriyac lerturican
Ni ez lertutzeaz.?

*Aita gurea, Agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



AMAIRUGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus'en gorputz illa bere Amaren besoetan dago.**

---

Mariya'c magalean
Dauca gorputz illa,
Sarritan laztandubaz
Arren arpergiya.
¡Nic det ill Seme Jesus,
Nic det ill, Mariya,
Baña ondo damu naiz,
Ama errucarriya!

*Aita gurea, agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.



AMALAUGARREN GUELDIALDIYA.

**Jesus'en gurputz illa lurpetzen dute.**

Magaletic amari
Quendutzen diyote,
Usaiz licurtaturic
Obiratzen dute.
¡Eraman du Mariya'c
Zenbaitxo naigabe,
Ez ni uzteagatic
Zeruricán gabe.

*Aita gurea, agur Mariya ta Gloriya.*

Jesus ona, etc.

## AZQUENA

Naigabe oyetatican
Izazu erruquiya,
Jauna, eta indazu
Betico biziya.
Zugandican det uste
Ontzeco zoriya,
Zugandic izango det
Zeruco gloriya.

*Bost zauriyen adoraziyoraco bost Aita gure ta bost Gloriya.*

BIBLIOTECA
P. BENEDICTINOS

## PECATUEN AITORTZE TA JAUN-ARTZECO BIDEA.

### *Pecatuen gogoratzea.*

OTOITZA.

Nere Jaun eta Jaungoicoa: pecatuac biar bezela aitortzeco asmoan nator. Zure ordez lurrean dagoen apaizari, nere biyotzeco barren guzia aguertu nai nioque, bañan onetaraco bear det nere pecatuac

ezagutzeco arguia, oyec gogoratzea, ezagüera, eta guziac diranac diran bezela aguertzeco asmo sendoa. Arguitu zadazu bada, ¡Espiritu Santua! arguitu zadazu zeruco arguiz nere adimena, nere pecatuac ondo ezagutu ditzadan, guziac apaizari damutasunic andienaz, eta biziro gorrotatuaz, aitortu ta aguertzeco.

Pecatarien ama erruquitsu Maria,

¡Erruqui zaite nitzaz, ta lagundu zaidazu bear dedan laguntza iristen.

Nere Aingueru betico lagun ta zaitzallea: lagun zaidazu nere gaiztaqueriac gogoratzen aitortze on baten bitartez Jaunaren laguntza betico neregandu dezadan.

*(Aita gurea eta Agur Mariya).*

---

### Beguira orain.

¿Zenbat egun edo aste da confesatu zi-

ñala?—¿Utzi al zenduan pecatu larriren bat esan gabe lotsaz, gaiztaqueriz, edo aztuta?

¿Bete al zenduan penitentzia?

*Lenengo aguindua.*

¿Bai aldaquizu salbatzeco jaquin bear dan ainbat dotriña? Arquitu al zera Fedeco articuloen bat sinisten ez dezula? ¿Quezquic gai onetan izan al dezu?—¿Itz eguin al dezu iñoiz Errelijioaren

caltez? ¿Liburu charren bat iduqui al dezu, edo iñori eman, edo iracurtzen aditu? ¿Sorguinquerietan sinisten ote dezu?—¿Zu salbatzeco asmoac galdu aldituzu edo gai ontan osoro utziric bizitu al zera, bacarric Jaungoicoaren ontasunean zure ustea jarriric, zedorrec ezer eguin gabe?—Egon al zera luzaroan ezer errezatu gabe, edo Fede, Esperantza ta

Caridadezco eguintzic eguin gabe?

*Bigarren aguinduan.*

¿Juramenturic guezurraren gañean, edo zalantzan, eguin al dezu? ¿Eguiarequin juramentu eguin dezunean, bear zala eguinote dezu? Jaungoicoaren edo santuen izenic aotan artu al dezu madaricatzeco? ¿Zenbat aldiz? ¿Esqueintzen bat eguin, ta bete gabe luzaroan egon al zera?

*Irugarren aguinduan.*

¿Mezicentzun gabe zure culpaz jayen batean guelditu al zera? ¿Besteri galerazi ote diozu entzutea? ¿Mezabitartean izquetan egon al zera?—¿Elizan, Santuen irudiyai ta elizaco gauzai zorzayen beguirapena beti ecarri izan al diezu?—¿Bijili egunetan araguiric jan al dezu?—¿Nastu aldezu jatorduen batean

aragui ta arrairic barau-egunez? ¿Bulda santua artu al dezu?

*Laugarren aguinduan.*

¿Zure gurasoai, apaizai, edo nagusiagoai beguirapenic galdu al diezu? ¿Bearrean arquitu diranean zure gurasoai lagundu?— ¿Obeditu al diezu zerbait aguindu izan dizutenean?— ¿Eguin al dituzu bere azquen-nayac? Mirabea bazera, ja-

quin ezazu nagusi-
echecoandreac dau-
cazquitzula gura-
soen ordez bezela.
Gurasoa bazera,
¿semeai dotriña e-
racusten al diezu?
¿Oitzen al dituzu
goiz ta gabetan,
baita ere jateraco-
an, errezatzen?—
¿Illuntzean echera-
tzen al dituzu? ¿Ga-
betan echetic atera-
tzen al dira?—¿Egu-
nez nundic nora da-
biltzan zaitzen al di-
tuzu?—¿Bai alda-
quizu castigatzen,

bear dutenian?—¿Umeai bezela mirabeai beguiratzen al diezu?—¿Errosario santua etxean errezatzen al dezute?

*Bosgarren aguinduan.*

¿Iñorequin asarreric izan al dezu? ¿Gorrotoric iñori eduqui al diozu?—¿Iñor il, zauritu, edo jo al dezu? ¿Iltzeric edo beste gaitz aundiric iñori opa izan al diozu? ¿Calteric eguin? ¿Iñori eguiteco aguindu?

—¿Besteren gaitzez poztu, edo onaz tristetu al zera?—¿Amaren sabelean dagoan aurra galtzeco ezer eguin al dezu? ¿Jan-edan gueyeguizcoric?

*Seigarren aguinduan.*

¿Zure buruarequin edo besterequin araguizco pecatutan erori al zera?—¿Zure pecatuco lagun ura ote zan senide, aide, edo ezcondua?—¿Asmo ta gogoratze loyai toquiric eman

al diezu?—Itz loyac esan, edo gogoz aditu al dituzu?—¿Dantza nastuetan ibilli al zera?—¿Eta gabez bide gaiztoetan? Icusi itzazu emen ondo, nolacoac izan diran zure jolas, eguite, beguirune ta cantac. Beguira gañera liburu edo irudi nazcagarriric ote dezun.

### *Zazpigarren aguinduan.*

¿Ezer ostu al dezu? ¿Bestec osturic gorde al dezu? ¿Ostu-

tzen iñori lagundu al diozu?—¿Ostutzeric norbaiti aguindu al diozu? ¿Saldu-erosietan, artu-emanetan edo jocoan ez bearric eguin al dezu?—¿Zorric ucatu edo, ordaindu al zenezaqueala, ordaindu gabe eduqui al dezu? ¿Gauzaren eguitaco balioa baño gueyago iñori quendu al diozu, edo eguin bear dezun lana eguin gabe gueldítu al zera? ¿Arquitu izan dezun gauza

jabeari biurtzeco aleguiña eguin al dezu? ¿Escubide gabe auziric iñori eman al diozu?

*Zortzigarren aguinduan.*

¿Iñoren uste charric, artaraco bideric gabe, artu al dezu?—¿Besteren utseguiteric esan edo gogoz aditu edo galerazi zentzaqueala eguin gabe utzi al dezu?—¿Guezurrez iñori izen onic galdu al diozu?—¿Oituraz guezurric

esaten al dezu, ta batez ere calte andien bat eguin dezaquianic?—¿Etxeetaco paqueric esamesen bidez galdu al dezu?

(Bederatzigarren aguindua seigarrenian sartzen da ta amargarrena zazpigarrenian).

---

### *Pecatuen gogoratze-ondorengo eta aitortze-aurreco otoitza.*

¡Jesus nere salbatzalle maitea! Ezagutzen det nere pecatuac berritu dizutela sarritan zure pasio santua, eta ortan irabazi izan

dedala inpernua; baña zure ontasunac deitu eta eman dit beta ta laguntza, atzera zure adisquidetasun santura biurtzeco, ¿Zer emango dizut nic, ontasun berdingabe oni erantzuteco? Besterican ezer ez, nere damutasunezco negar malcoac baizic. Artu zaizquidatzu ontzat, Magdalena'renac bezela, beguiratu gabe nere pecatu asco eta aundiac, baizic zuc

nigatic ixuri zenduan odol ain ederra. Nic, nerez barcatzeric irabazi ezdedala badaquit; baña baita ere badaquit zure odolaren tanto bacar bat asco dala nere ta beste guzien pecatuac barcatzeco, eta neretzat zorionic aundiena eta bide batez zuretzat pozaldiric onena dala, ni zugana osoro biurtzia. Ona bada, emen non natorren zure ordezcoaren oñetara, ne-

re pecatuac gorrotatuaz, aurreracoan ezergatic ere gueyago ez eguiteco asmoan, eta guzien barcapena eta zure laguntza iristeco uste osoan.

Esan ezazu *Ni pecatariya,* zoaz apaizaren oñetara eta esan itzazu zure pecatuac onela:

Nere Aita, onenbeste egun edo aste da aitortu nitzala. Penitentzia bete nuen (edo ez nuen bete) pecatuen gogoratzea eguin det: Azqueneco aldiyan

ez nun pecaturic aitortu gabe utzi (edo utzi nuen onelaco edo alaco pecatu, lotsaz, aztuta edo gaiztaqueriz, edo beste zerbaitegatic). Andic onarañocoac orain esango dizcat. Lenbizico aguinduan onelaco edo alaco pecatu eguin det (pecatuac gogoratzean arquitu izan dituzun bezela.) Bigarrenian onelaco edo alaco, onenbeste edo ainbeste aldiz (eta one-

la beste aguindu guzietan ere, esamiñan arquitu dezun guzia esango dezu, eta guzien buruan esango dezu:) Orain escatzen diot Jaungoicoari barcatzea, eta zuri absoluzio santua.

(Aditu itzazu ondo esanac; absoluzio santua artu eta bete, albadezu, bereala penitentzia).

### *Aitortze-ondorengo otoitza.*

¡O nere Jauna! nitzaz izan dezun e-

rruquia beti esquertuco dizut, pecatu guziac barcatu, ta betico eriotzatic gordetzen nazulaco: Nere animac orain ta beti bedeincatuco zaitu, eta eguin diozcazun laguntzac iñoiz etzaizca aztuco ¿Ez aldet zure nayera lotua egon bear, nitzaz izan dezun erruquiaren ondoren? Beragatic ¡nere animaren Salbatzallea! esqueñi det, zure laguntzarequin, zure aguin-

duac bear bezela be-
tetzea. Ezarri ezazu
zure bildurra nere
biotzean, aguindu-
en bidetic jarraitze-
co: badaon zait zu-
requin batean joa-
tea, nere icharopen
osoa zure gogoan
jarriaz. Eguizu ez
nadilla zugandic al-
dendu, Jauna, eta
zuzendu nazazu, bi-
de on eta zuzene-
tic ibilli, ta egunen
batean zure etxeco
ondasunac iristeco.
Irichi zadazu, nere
Jauna, esquer au;

ezdizadazula ucatu, bada zuc salbatzen dituzu beren ustea zugan jartzen dutenac.

### *Jaun'artze-aurreco*

Jaungoico gure Jaunari otoitza.

---

¡Jaungoico biotz biguña! ¡Nic banu zutzaz, escatzen didazun guzia neri emateco zuc neretzat daucazun naitasuna! Zuc eman didazu, zure naitasunaren bidez, zorion aundi bat, eta bera da zure Semea: au

artzera nator, guero nere biotzaren maitetasun guziarequin zuri esqueintzeco, onela zure naitasuna eta nere esquer ona berdintzeco bidea arquituaz ¡Nere Jaungoicoa! eguizu sar-dedilla beregan nere anima gueyago zuri bidegabequeriric ez eguiteco.

*Jesucristo gure Jauņari otoitza.*

---

Nere animaren salbatzallea, gogo

aundiz nai zaitut artu nere barrenen, argal ta gaiztoa banaiz ere. Beragatic garbitu ezazu bizitzera zatozen toqui au, eta quendu itzazu bertatic zure beguiac igüi dituzten gauzac, eta onela garbi guelditua̲z, eta zure laguntzarequin guero ta gueyago zabalduaz, zure naitasunaren aunditasuna obetoago artuco du.

## Espiritu Santuari otoitza.

¡Espiritu Santua! Seme Jaungoicoa Ama Birjiñaren barrenen araguiz jazteco gorputz eta anima bear zan bezela ipiñi zenduena: atoz, sar zaite nere barrenen, eta ipiñi itzazu nere gorputz eta anima Jaungoico guizon eguiña artzeco.

---

Apaiza etortzen danean Jaun' artzera dijoanaren aurrera Copoi eta Ostiarequin, au jasoaz esaten du: *Ecce Agnus Dei, ecce qui tollit peccata mundi*; eta orrec esan nai

du *Ona non dezuten Jaunaren bildotxa, auxe da munduco pecatuac quentzen dituena.* Orduan esango du Jaun'artzera dijoanac:

¡Osti bedeincatua, ainguerueu janaria! adoratzen zaitut biotz guziz; adoratzen zaitut nere Jaungoico ta Salbatzallea; sinisten eta uste det nere biotza sendatuco dala ta zure laguntzaren bidez obetuco naizela.

Guero esango du biotz-biotzetic:

Nere Jesucristo Jauna, ez naiz ni, zu nere etxe argalean sartzeco ainbat: baña zure itz guztiz santuaren bidez nere pecatuac izan bitez barcatuac, eta nere anima sendatua ta

salbatua. (*Au esango du iru bider apaizarequin batean.*)

☞ Jauna artzean, aoz ez, baizic biotzez bacarric, esango du:

Jesucristo nere Jaunaren gorputzac nere anima gorde ta eraman dezala betico bizierara. Ala izan dedilla.

*Jaun'artze ondorengo otoitza.*

---

Cristoren anima guziz santua, santu eguin nazazu: Jesucristo nere Jaunaren gorputza, salba nazazu: Cristoren odol garbia, ase na-

zazu: Cristoren sayetseco ur garbia, garbi nazazu: Cristoren arpeguico izerdi ongarria, senda nazazu; Cristoren pasio errucarria, indartu nazazu. ¡Jesus ona! zaitu nazazu: zure zaurien barrenen ezcutatu nazazu: ez dizadazula utzi zugandic aldentzen: nere eriotzaren orduan nere aldez eguizu; lagundu zaidazu, Jauna, zugana joateco; eta ipiñi nazazu zure

aldamenean, ainguеru, goiainguеru ta santu guziaquin zu beti or goyen goratzeco. Alaxen.

*Jaun'artze-ondorengo esquerrac emateco Tomas Santu eracuslearen otoitza.*

---

¡Jaungoico gure Jauna, aita guzialdun eta ezin obea! Esquerrac, Jauna, janaritzat zure seme bacar Jesucristo gure Jabearen gorputz eta odol garbia eman dizquidazulaco; eta au

guztia, ez esquer oyen gai arquitu nazulaco baizican zure erruquitasun azquengabeagatic, bada pecatu ta bidegabequeri asco eguin dizquizut. Escatzen dizut Comunio onec balio dizadala zure asarrea itzaliyaz, nere pecatuen barcapena iristeco; sinismen bizia iristeco: sinismen onequin Zure babesean ibilliric nere asmo gaiztoac uzteco; nere gaiztaque-

riac ezerezteco; nere cupitasun, eramanquizun, ixiltasun eta beste birtute guziac gueitzeco; nere etsayen eraso gogorren aurrean lagun izateco, Zurequin betico bat eguin nazan, ¡nere Jaungoicoa! eta azquenic zeruratzeco eguintz ederra azquentzeco. Baita ere escatzen dizut mundu ontan zure mayean artu nazun bezela, zure maiteentzat beste munduan daucazun

mai artara artu nazazula; bada an, Seme eta Espiritu Santuarequin zu zera eguizco arguia, atseguin osoa eta betico zoriona. Alaxen.

BIBLIOTECA
P. BENEDICTINOS



# BEZPERAC

Gure Eliza Ama Santuac aguintzen digun lenengo gauza da jai eguna santutzea. ¿Eta santutzen ote dituzte araco laxterca eta itsumustuan meza bat icusi, eta gañeraco jai guzia jostaquetan, jolasean eta baita ere gaizqueri ta pecatuetan iga-

rotzen dutenac, sermoi eta apaizaren beste gañeraco eracusaldietara joaten ezdiran eta bezperetara joan bearrean sagardotegui zuloetan, jocuan oidabiltzanac? Zerorregan erabaqui zazu, cristaua, beguira ezazu, itsumen gabe, eta icusico dezu zure barrenac zer esaten dizun. Baña bear bada, esango didazu: ni sermoi eta apaizaren eracusaldietara joatea, on

litzaque: baña ¿bezperetara zertara, baldin cantatzen ezpadaquit eta cantatzen dutenac zer esan nai duan aditzen ezpadet? ¿Zer eguingo det an?.. Au da cristau epel, alper, naguiac eman oi duten aitzaqui txarra. Bada, zer ¿bezperac otoitzen zati edo pusca bat dirala, eta beretan Jaincoa goratzen dala ez aldaquizu? Zu gogoz edo naiez goratzen oequin bat

eguitea ¿norc galerazten dizu? Auxe da bezperac bitartean zuc eguitea Elizac nai duana. Erlijiozco eguiteco au zuri erraztutzeco eta aitzaqui guziac quentzeco, ipintzen dizquizut Salmoric ainbat jarduera, beretaco bacoitzean gueldditu zaite pensatzen apaizac cantatzen duten salmoac diraunerano.

## LENBIZICO SALMORACO

### JARDUERA

*Anima Jaincoari deituaz apal-apaltzen da.*

---

Atoz, atoz nere Jaungoico laztana, atoz eta lagun zadazu laxter.

Zu zera nere Aita, ni esquergabea banaiz ere: atoz, Jauna, etzaitzala nere esquergabequeriac atzeratu, damutua nago ta.

Nic nere ezereztasunaren erditic deadar eguiten dizut,

Jauna, erruqui zaitealala nere anima gaiztoaz.

¿Zu gabe zer eguingo det, nere biotzeco Jaincoa? Arbolatic quenduric surtaraco dagoan adarra bezela, nai ta ez ilco naiz.

Pecatari beartsu ta errucarri bat naiz; indazu zure laguntza bera gabe gauz onic ez dezaquet-eta.

Bacarric pecatua da ni bildurtzen nauana, Jaincoac

galerazten didalaco ta Jaincoa galduezquero, guzia galtzen dedalaco.

Mundu ontan guzia bucatzen eta aitutzen da baña Jaincoa beticotasun guzian bizico da, eta berac nere zorion edo gaiztoa eguingo du, nic bera maitatzen edo calte eguiten dedan eran.

Nere Jaincoa, aitor ditut egui oec; eta macurtzen naiz zure Aunditasun maitagarriaren aurrean.

Zu zera nere Jaungoicoa, ni zure mendeco ezereza, eta laguntza escatzen dizut nere biotz guztiz.

Castigua baizic bear ez nuque, Jauna, baña zure ontasunagatic guzia uste det escuratzea zure odolaz irabazia nagoalaco.

Bacarric gauza bat asco zait, eta bacarric gauza baten zale naiz, eta da, zu nere Jaungoicoa, lurrean eta zeruan neretzea.

Gloria Aitari, gloria Semeari, gloria Espiritu Santuari beticotasun guzian. Alaxen.

## BIGARREN SALMORACO

### JARDUERA

*Jesucristo'ren irabazpideac zerua irabazteco uste aundi bat emango digute.*

---

¡Jainco eta betico Aita! Nere pecatuac bildurtzeco gai eta bideac ematen badizquidate, zure seme Jesucristo'ren ontasunac uste izateco ascoz bide aun-

digoac ematen dizquidate.

Bide oec ascoz indartsuagoac dira ni salbatzeco, nere pecatuac ni galtzeco diran baño.

Eguia da nic pecatu eguin nuanean, betico nere galera billatu nuala, baña eguia da ere, nere erosleac nere galeraco epaya urratu zuala eta bere odolaren ordez erosi ninduala.

Nere gaiztaqueriac nere aurrean

castigu-esque daude; baña Jesus'en odol onguilleac nere alde deitzen du, eta Jaincoaren aserrea gozatzen du.

Odol guziz ongarri au indartsuagoa da Jaincoaren erruquipena iristeco, Cain condenatzeco Abel'ena izan zan baño.

¿Nola nic barcapenaz etsico det, Jesus nere naitasunez gurutzean josiric icusita?

Guziz uste oso ta

betea daucat, ni zeruratzeagatic ainbeste eraman zuanac emango dizquidala ortaraco bear ditudan laguntzac.

Goazen bada, nere anima, zorionaren jarlecura, barcapena iritxico degun uste osoan.

Baña goazen laxter, ez dezagun escubide au galdu, bear bada gueroago betic izango eztegulaco.

¡Nere Jesus! Artu itzazu nere gogoa,

nere biotza ta nere naitasuna; guziz maite zaitut eta betícotasun guzian maitatu nai zaitut.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

### IRUGARREN SALMORACO

### JARDUERA

*Neque-lanetan eramanquizuna.*

---

Ezin guztiro zorionecoac izango guera zerura joan arte: lurra, gurutzezco eta oñazezco toqui bat bai-da.

Lurrean gure bi-

zitza laburra da, eta samintasunez eta naigabez betea dago.

Oec eramanquizunez daramazquiena zeruratzen da; gogo gaiztoz daramazquiena berriz betico galtzen da.

Lanaren galbaian bereizten da alea lastoagandic Jaunaren Elizan.

Naigabeac onez daramazquiena da zeruraco berezitutaco alea; gogaitzen ta asarretzen dana eta

Jaincoa usten duana, inpernuco sugarretaraco bereizten dan lastoa.

Erredimitzallearen zauri guziac, nequeac bere maitetasunez eramaten eracusten diguten beste ainbeste mingain dira.

Jesucristo'c gugatic eriotz gogorra artu zuan. Jesucristo'gatic eramatea da santuen jaquintasun guzia.

Anima baten irabazbide guzia dago

Cristo maitatzean eta bere maitetasunez nequeac eramatean.

¡Nere jaincozco eroslea! Ezagüerazi zaidazu zein maite izan nazun eta zenbat neque nigatic eraman izan dezun, nic zu maite zaitzadan eta zugatic eraman dezadan.

Lagun zaidazu, Jauna, zure laguntzaren zai nere araguia argal eta gaxoric dago-ta.

Nolanai ere mun-

du ontan neque ta oñazeac eraman bear ditut; beraz irabaziaz nequez betericbizi nai det gurutze ta naigabeac eramanaz.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

## LAUGARREN SALMORACO

### JARDUERA

*Urcoaganaco naitasuna.*

Jaincoa maitatzen duan animac maitatzen ditu guizon guziac, Jaincoac eguiñac diralaco.

Naitasunac bide

guziac billatzen ditu, alditequean eran gure antzecoai laguntzeco.

Naitasuna da Jaincoac ainbeste escatzen digun onbidea; bera izan bear degu garai ta toqui guzietan.

Bearrean daudenai naitasuna iduqui bear diegu, guzienean munduco arro ta aundinaiac azpiratzen dituztelaco.

Gaxo daudenai naitasuna eduqui bear

diegu, naigabez beteac eta ascotan iñoren laguntzic gabe arquitzen diralaco.

Adisquide ta onguilleaz naitasuna eduqui bear degu, ezagüera onac eguiteco au escatzen dalaco.

Gure etsaiai naitasuna eduqui bear diegu gure antzecoac diralaco eta Jaincoac ala aguintzen digulaco.

Gorroto bear diogu pecatuari, sinismenaren uts egui-

teai, erligiogabequeriari; ez ordea pecatariai, erejeai, erligiogabeai, Jaincoaren semeac diralaco.

Eramanquizunaz eta gozotasunaz escuratzen eta garaitzen da arroqueria, biguntasunez gorrotoa.

Naitasunezco gogo au da Jesucristo'c berac itz eta eguitez eracusten digun Jaincoaren gogoa.

Santuac au edu-

qui zuten, eta guc ere au eduqui bear degu, baldin ayec irabazi zutena nai badegu.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc

BOSGARREN SALMORACO

JARDUERA.

*Jaincoaganaco maitetasunaz.*

---

Maitatu bear degu Jaincoa gauza guziac baño gueigo, eta nai izan bear degu bera maitatzea gure maitagarri bacarra bezela.

Jaincoa da maite-

tasunaren iturburu eta asiera, eta ala ez guera maitatu bear, ezpada Jaincoagatic eta berac nai duan eran.

Gure etsaya aleguintzen da guri urcoaganaco naitasun eragabe emanerazitzera; eta gogo oni toqui eguiten diona galtzeco zori aundienetan jartzen da.

Zertaraco det guztiac maitatzeac eta berac ni maite izateac baldin eguilleac gorroto badit?

Esango det, bada, aspertu gabe, Jaincoa maitatzea da nere asmo gozo guzia, Jaincoaren aguindupean jartzea nere eguiteco guzia.

Nere salbatzalle gozoa, gogoz artu ta gueitu zazu nere gogo au, eta quendu zaidazu zuganaco ezdan naitasun guzia.

Ni poztutzen naiz zure ontasun ondogabean pentsatzen; ontasun onec pecatari damutua iñoiz

ere beragandic bota tzen eztu.

Zuc, Jauna, txit maitatua izan bear zenduque eta nic zure escutic laguntzic asco artu ta artzen ditut, eta maitatu bear zaitut.

Ona emen, nere Jaincoa ni zu maitatzera oso emana; eta milla biotz banitu, guziac zuretzat izango liraque.

Zuc nere maitetasuna nai dezu, nic maitatu nai zaitut, eta orain beticota-

sun guzian maitatu nai zaitut.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc.

IMNORACO JARDUERA

—

Zuri deiez nagoquizu. ¡Jaungoico guziz indartsua! Zatoz, neri laguntzera, ez luzatu ni babestea.

Nere etsayac gauta egun erasotzen didate; baña zuc, Jauna, lagunduco didazu eta ill arteraño lazqui erasoco det. ¡Bai gozoa dala

zure adisquidetasunean bizitzea! ¡Bai atseguiña zure Aita, nere Ama eta nere Anaia. ¡Baña nolaco Aita, nolaco Ama, nolaco Anaia! Aitic gozoen eta indartsuena, Amic biguñen eta maitetsuena, Anairic zintzuenta onena! Ni zure seme ta laguntzalle zintzo izango naiz beti. ¡Jauna, nere Jabe gozoa! Zurequin bizitzea da nic nai dedana; zure zeruan arquitzea,

nic nai nuqueana.

Nic, nere Jaincoa, ezagutzen det nere ezereza; nic, Jauna, aitor det nere ustasuna; baña zuc zerorrec esan dezu: *Utzi zayezute txiquitxoai nigana etortzen*; eta ala ni zure adisquidetasunaren billa nator. Irazequi zazu, Jauna, nere biotz au; indartu zazu nere naitasuna zu beti gora zaitzadan eta zugan beti nere gogoa euqui dezadan.

# MAGNIFICAT'ERACO

## JARDUERA

*Animac Maria Itxit Santua goratuaz bere babesean artzea escatzen dio.*

---

¡Maria, Jaincoaren Ama! ¡Zu onbidean eta aguintean ainguera guziac baño aundiagoa; zu zera, Jaincoaz urrena, gure uste osoa ere.

Zu zera naigabetuen pozgarria, erien osasuna, pecatarien gordelecua eta zintzoen atseguiña.

Zu zera ontasunez-

co lorategui ederra; iritxi eguidazu apaltasun, garbitasun eta maitasunaren lore ederra.

¡Jesusen Ama maitea! Itz eguizu, bada zure Semeac aditzen zaitu eta esca eguizquiotzu neretzat esquer ugariac.

Zure oñetan auzpezturic escatzen dizut, iritxi deguidazula nere pecatuen barcapena, ta zure Seme ta nere eroslearequin bat eguitearen zoriona.

¡Maria beti maitagarria! gogoratzaite Jaincoaren semea zure errai garbietan guizon eguin zala ez pecatariac galtzeco ezpada zeruratzeco.

Nere Ama ta bitarteco gogoa, artu nazazazu zure maitatzalle zintzoen artecotzat.

Eman eguizquidatzu zure ondasunac escarrez betea deitzen dizu aingueruac-eta.

Jaincoa bere mai-

tatzalle zintzoa goratzen poztutzen da, lurreco aundinai arroac azpiratzen eta beeratzen dituan bitartean.

Zorionecoa deitzen dizute erri guziac; eta zure izen santua guizalditic guizaldira igaroaz joango da.

Gloria Aitari, gloria Semeari, etc,

OTOITZA.

¡Nere salbatzallea! Nere pecatuen zorra ordaintzeagatic lo-

carriz lotua, iltzez josia ta gaizquille bat bezela gurutze batean illa izan ziñana; nere oquerracgatic negar eguiñaz escatzen dizut, indazula zu maitatzeco eta iñoiz ere zuri calteric ez eguiteco bear dedan laguntza: ni, Jauna, zure escuetan jartzen naiz, artu nazazu, eta zure biotzean iduquinazazu betico. Alaxen.



## ERROSARIYO SANTUBA

Era bitara da errosariyoa: bati deritza Ama Birjiñaren *coroa*, zazpi amarrecorequin, gañera bi Agur Mari, eta azquenean Aita Santubaren izenean Aita gure bat eta Agur Mari bat, au bera esanda irabazten dute Aita Francisco santubaren iru ordenetacoac barcapen osoa.

Besteari deritza *errosariyoa*, eta onec ditu ama-

bost amarreco, ta esan ditezque amabostac bata bestien urrena, edo bosnaca edo banaca. Eta dan bezela dala, amabostac esanezquero irabazten da barcapen osoa.

Baña au irabazteco esan bear da bai bata ta bai bestea, gogo aundiyarequin aoz ta biyotzez, ez erdi lo, gogo gabe ta buruba beste lecutan dala; betaz, eta itzac ortz-artean naztutzen ez dirala, itxodonaz batac osotoro esan artean besteac erantzuteco, eta escatzen zayola Ama Birjiñari, arren, gure bitarteco izan dedilla iritxi dezagun Jesus maiteagandic bear de-

gun laguntza bere gorapenic aundiyeneraco ta gure animen oneraco.

Onezaz gañera gogora itzazu amarreco bacoitzean egunari ta amarrecoari dagozquiyon misteriyoac, aurrerago esaten diran bezela.

✖

ASTELEN-OSTEGUNETARACO

## ATSEGUIÑEZCO MISTERIYOAC

Ziñatu, Contriziozco Eguintza eguin, urrengo misteriyoac cantatu eta guero Aita guria ta Agur Mariyac esaten dira.

**Jesus onaren Ama maitea,**
**Laguntza dizut escatzen**
**Bost misteriyo pozez beteac**
**Lagun zaiguzu cantatzen.**



## LENENGO MISTERIYOA

**Jaungoicoaren Semea guizon eguitia.**

Zerubetatic ecarri zizun
Aingueru batec albistea
Zugan araguiz jantzico
[zala
Betico Aitaren Semea.

Guziyac erantzuten dute:

*Ama Mariyen amarreco au*
*Aita gureaz batean,*
*Birjiña eder maite berari*
*Esaten asi gaitean.*



## BIGARREN MISTERIYOA.

***Ama Birjiñac Isabel Santuari eguiŋ zioŋ icustaldiya.***

Jaincoaz aurdun zu zoaz
[Ama
Icustera lengusuba,
Eta Juan Santu jayo gabea
Esquer ugariz bete da.

*Agur Mariyen, etc.*



IRUGARREN MISTERIYOA.

*Jesucristo'n jayotza.*

Jayo zanean zure Semea
Zerau nescutza utziric
Guelditu guiñan guzti-
[guztiyoc
Ondasun gozoz beteric.

*Agur Mariyen, etc.*



## LAUGARREN MISTERIYOA.

*Ama Birjiñaren elizan-sartzea*

Jerusalen'go Eliz santuan
Jesus esqueñi zenduan,
Esquein gaitzazu gu ere
[orain
Jaunac beretzat ar gaitzan.

*Agur Mariyen, etc.*



BOSGARREN MISTERIYOA.

*Jesus galdu ta irugarren egunean arquitzea.*

Galduezquero, billa zen-
[duan
Elizan zure Semea,
Poz onegatic nai ez beguizu
Gu pecatuan iltzea.

*Agui Mariyen, etc.*



## ASTEARTE-OSTIRALETARACO.

## ATSEGUIÑEZCO MISTERIYOAC.

Jesus onaren Ama maitea
Laguntza dizut escatzen,
Bost misteriyo miñez be-
[teac
Lagun zaiguzu cantatzen.



## LENENGO MISTERIYOA.

*Baratza santuco Jesus'en otoitza.*

Jetsemani'co baratza artan
Auzpez lurrean jarriric,
Zegoan Jesus odol ixurtzen
Biyotza berriz larriric.
*Agur Mariyen amarreco au*
*Aita gureaz batean,*
*Birjiña eder maite berari*
*Esaten asi gaitean.*



## BIGARREN MISTERIYOA.

*Jesus'en astiñaldi icaragarriya.*

Bost milla zigor artu zi-
(tuban
Gure pecatubagatic,
Zer gaitz aundiya dan pe-
(çatuba
Jaquin ezazu emendic.

*Agur Mariyen, etc.*



## IRUGARREN MISTERIYOA.

***Jaunari arantzazco coroa ipintzea.***

Arantza zorrotz gogor ta
(latzez
Coroaturic buruba,
Nunbait Jesus'ec quendu
(nai zigun
Gure aundiuste itxuba.

*Agur Mariyen, etc.*




LAUGARREN MISTERIYOA.

*Jaunac gurutzea eramatea.*

Gurutze astun bat lepoan ta
Lapur gaiztoen erdiyan,
Eramanzuten Jesus maitea
Calbariyoco bidean.

*Agur Mariyen, etc.*

---



BOSGARREN MISTERIYOA.

*Jesucristo'ren gurutzeco eriyotza.*

Iltzez josiric ¡ay! gurutzean
Eman du Jaunac biziya,
Gure animac gal etzitezen
Icusi zuan guziya.

*Agur Mariyen, etc.*

---



IGANDE, AZTEAZQUEN TA LARUNBATERACO

## ZORIONEZCO MISTERIYOAC.

Jesus onaren Ama maitea
Laguntza dizut escatzen,
Bost misteriyo glorizco (oyec
Lagun zaiguzu cantatzen.



LENENGO MISTERIYOA.

*Jesucristo'ren piztuera.*

Miñen ondoren, Ama mai-
(tea
Icusten dezu pizturic,
Illen artetic zure Semea
Eguzqui eder eguiñic.
*Agur Mariyen amarreco au*
*Aita gureaz batean,*
*Birjiña eder maite berari*
*Esaten asi gaitean.*



BIGARREN MISTERIYOA.

*Jaunaren zeruetara igotzea.*

Berroguei egun emen e-
(guinda
Zerura igo danean,
Ondo pozican artu du Aitac
Bere escuico aldean.

*Agur Mariyen, etc.*



## IRUGARREN MISTERIYOA.

*Espiritu Santuaren etorrera.*

Guero Espiritu Santuba
(bera
Sutan zerutic zetorren,
Apostoluac eta besteac
Maitetasunez betetzen.

*Agur Mariyen, etc.*

---



## LAUGARREN MISTERIYOA.

*Ama Birjiña zerura igotzea.*

Jesus maitcac icustearren
Zeruan zorionduric,
Ara zaramaz gorputz ta
(anima
Aingueruz inguraturic.

*Agur Mariyen, etc.*

---



## BOSGARREN MISTERIYOA.

*Maria Ixil Santuaren glori aundiya.*

Trinidadeac jarri zinduan
Seme Jaunaren aldean,
Beti ta beti iduquitzeco
Beste guziyen gañean.

*Agur Mariyen, etc.*



# Ama Birjiñaren Letaniya

EUZQUERAZ.

---

Jauna, erruqui zaite.
Cristo, erruqui zaite.
Jauna, erruqui zaite.
Cristo, adi gaitzazu.
Cristo, entzun gaitzazu.
Zeruco Aita Jaungoicoa,

*Erruqui zaite gutzaz.*

Mundubaren Erosle Seme Jaungoicoa,

*Erruqui zaite gutzaz.*

Espiritu Seme Jaungoicoa,

*Erruqui zaite gutzaz.*

Irucoitz Santu, Jaungoico bat zerana,

*Erruqui zaite gutzaz.*

Maria Santua,
Jaungoicoaren Ama Santua.
Cristoren Ama,
Jaincozco escarraren Ama,
Ama guztiz garbiya,
Ama guztiz txucuna,
Birjiña zeralaric Ama,
Ama cutsuric gabea,
Ama sortzetic garbiya,
Ama maitagarriya,
Ama arrigariya,
Esan oneco Ama,
Salbatzallearen Ama,
Birjiña guztiz beguiratuba,
Birjiña goragarria,
Birjiña gogoragarriya,
Escu aundico Birjiña,
Birjiña biyotz biguña,
Birjiña zintzoa,
Birtute guztien ispillua,
Jaquintasunaren eserlecua,
Gure poz-emallea,
Ontzi espirituala,
Ontzi beguiragarriya,
Deboziyoaren ontzi aundiya,
Arrosa arrigarriya,
Dabiden Torrea,
Marfillezco Torrea,
Urrezco etxea,
Batasunaren cutxa,

Ezcatu esazu gure aldez.

Zeruco atea.
Egun txintaco Izarra,
Gaixoen osasuna,
Pecatariyen babeslecua,
Larrituen poza,
Cristauen laguntzallea,
Aingueruen Erreguiña,
Ercaben Erreguiña,
Igarlien Erreguiña,
Apostoluen Erreguiña,
Martirien Erreguiña,
Aitorlien Erreguiña,
Santu guztien Erreguiña,
Jatorrizco cutsu gabe sortutaco Erreguiña,
Errosariyo sagraduco Erreguiña,

Escatu ezazu gure aldez.

Munduco pecatuac quentzen dituzun Jaungoicoaren bildotxa.
*Barca eiguzu, Jauna.*
Munduco pecatuac quentzen dituzun, Jaungoicoaren bildotxa.
*Entzun gaitzazu Jauna.*
Munduco pecatuac quentzen dituzun Jaungoicoaren bildotxa.
*Gutzaz erruqui zaite.*

℣. Jaungoicuaren Ama Santua gure aldez escatu ezazu.

℟. *Cristoren aguindubac iritxi ditzagun.*



Jesus'en Biyotz biguña, eguin zazu neria zurearen antzecoa.

# Jesus'en Biyotzari esqueñitaco
## GARAGARRILLA

*Eguneroco otoitza.*

Nic maitatu ta goratzen zaitut, nere Jesus ona, eta naitasunezco begui onez beguiratu diazulaco, zure biyotz biguñaren gozotasunac emanaz, esquerrac ematen dizquizut.

Guizonen aldez beti berotuba daucazun Biyotz biguña, artu nazazu, o-

netsi nazazu, arguitu nazazu, sutu nazazu. Alaxen.

## LENENGO EGUNA

*Jarduera.*—Meza bitartian eta lanic eztaucaten txolartietan nere buruban gogapen au euquico det; Jainco-Semearen biyotzacazquengabeco maitasunez maite nau ¿eta nic zenbat maite det?

*Esqueintza.*—Jaincuaren naitasuna goguan euqui, noizean-bein esanaz:

Nere Eroslearen biyotz ona, zure naitasuna nigan beti pizturic egon dedilla eguizu.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori esaten dira, eta guero*

## Otoitza

Jesus'en biyotz ona, naizen guztiya zuri esqueintzen naitzazu eta nai nuque gaurco nere esqueintza lore-sorta usaitsu bat izatia eta nere gaiztaqueriyen arantzaz minberatutaco zure bi-

yotz ezin obia gozatzia. Ar zazu, nere Jesus, nere esqueintza, zure ta nere Ama maitiaren escu garbi-garbiyen bidez. Alaxen.

*Il guztico egunetan lenbizico egunaren antzera asiera ta azquena emango zayo.*

BIGARREN EGUNA.

---

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Nere biyotza barrendic beguiratu biar det, Cristo nere jaunac escatzen duen gar-

bitasuna ote duen icusteco.

*Esqueintza.*—Jaincuaren laguntasunaz nere biyotzetic aldenduco ditut gogo, itz eta eguite gaizto guztiyac.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191'garren orriyan.*

## IRUGARREN EGUNA.

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*— Jaunaren biyotz ona beti goguan euquico det, neria onen antzecua izan dedin.

*Esqueintza.*—Iñori gorrotoric ez artzeco aleguiñac eguingo ditut.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

LAUGARREN EGUNA.

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jesucristo'ren ixiltasun ta apaltasuna gogora ecarrico det.

*Esqueintza.*—Nere Eroslearen Biyotzari esqueñico diyot nere zentzunen

zaintza eta batez ere beguiyena.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

BOSGARREN EGUNA.

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Nere maitasunez guizon eguindaco Jainco-Semiaren biyotz beraa goguan euquico det.

*Esqueintza.*—Jesus'en biyotzari esqueñico diyot munduco arroqueri ta

aundiqueri guztiyetatic alde eguitia.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191'garren orriyan.*

## SEIGARREN EGUNA.

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Nere burubari galdetuco diyot nere biarretan Jaincuaren laguntza ia escatu ote deten.

*Esqueintza.*—Nere indar ta quemen guziyac Jesus'en bi-

yotz errucorrari es-
queñico dizquiot.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

ZAZPIGARREN EGUNA.

---

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jesus'en biyotz ezin obia minberatu ote det, biar bezela Elizan ez egonaz?

*Esqueintza.*—Aleguinduco naiz gaur ta beti biar bezela Elizan egonaz, ta batez ere Meza santua

entzute-bitartian.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191‘garren orriyan.*

ZORTZIGARREN EGUNA.

---

*Eguneroco Otoitza, 189‘garren orriyan.*

*Jarduera.*—Pecatubac aitortzeco garayan ez-biarren bat eguin ote det?

*Esqueintza*—Biar bezela ta biyotzeco damutasun osuaz pecatubac aitortzeco esqueintza eguiten det.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191‘garren orriyan.*

## BEDERATZIGARREN EGUNA

*Euneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.* — Ainqueruben oguiya, gure Jauna, biar dan arrera onaz artu al det?

*Esqueintza.*—Nere biyotza sutu ta berotuco det al dan maizena eta batez ere illeroco ostiral edo igandietan Jauna artzera jarri dedin.

*ıru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## AMARGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jaunaren itzac biar dan bezela ez ote ditut entzun?

*Esqueintza.*—Zer esanac alde batera utziyaz Jesus'en biyotzari esqueñico natzayo betico.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## AMAICAGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.* — Je-

sus'ec nai duen bezela nere izqueta guztiyac garbiyac al dira?

*Esqueintza.*—Gauz bat esan baño len esqueintzen det ondo beguiratzia zer esaten dedan.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191'garren orriyan.*

## AMABIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Biar ditudan otoitzac oyeratzian eta jequi-

tzian eguiten al ditut?

*Esqueintza.*—Luac artzeracuan aleguinduco naiz buruban asmo on bat euquitzen.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191‘ garren orriyan.*

## AMAIRUGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189‘garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jate-edanetan gueyeguiqueriric eguiten al det?

*Esqueintza.*—Nere gogoco dan zerbait

Jesus'en biyotzari esqueñico diyot, batez ere ostiraletan, bere maitetasunaren izenian ez artubaz.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191'garren orriyan.*

AMALAUGARREN EGUNA

---

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Gaxo ta biartsuben aldez biyotz onecua al naiz?

*Esqueintza.*—Jaincuaren gorapenera aleguinduco naiz

biartsubai nere laguntza emanaz.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## AMABOSGARREN EGUNA

*Euneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Nere gañ daudenen aguindubac betetzen al ditut?

*Esqueintza.*—Nere gañecuac aguindutacuac eguiñaz Jesus'en biyotzaren aguindubac beteco ditut.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191' garren orriyan.*

## AMASEIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jesus'en biyotz biguñari escatuco diyot, bere caltian dabiltzanen aldez, beren bide oquerrac utziyaz, zeruco bide ona jarraitu dezaten.

*Esqueintza.*—Jesus'en sayetzeco zauriyaren izenian biartsuren bati laguntzen bat eguin.

*iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## AMAZAZPIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

***Jarduera.*—Ez utzi iracurtzen gure etxietan liburu edo periodicu gaiztoric.**

***Esqueintza.*—Liburu edo periodicu gaiztoric gure etxian balego, beste on batez ordeztu.**

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## EMEZORTZIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

***Jarduera.*— Biar**

deten eramanquizunic bai al det?

*Esqueintza*—Biar dan ixiltasunaz eramango ditut nere urco lagunaren gaizqui esan eta oquerreri guztiyac.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

## EMERETZIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Nere eguinquizunetan Jesus'en biyotzaren calteco ezer bai al dago?

*Esqueintza.*—Jabier'tar Francisco santubarequin esango det: ¿zertaco du guizonac mundu guztiya irabaztia azquenic bere anima galtzen badu?

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191'garren orriyan.*

## OGUEIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.* —Iguerri al diyot biltzen naizen lagunaren antzecua eta iracurtzen detan libu-

rubaren antzecua izango naizela, Jesus'en biyotz onac arguitzen ezpanau? *Esqueintza.*—Gaitz itsascor batetic bezela lagun gaiztotic alde eguingo det eta eztet libururic iracurrico apaiz jaun baten baimenic gabe.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

OGUEITABATGARREN EGUNA

---

*Euneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jesus'

en biyotzaren alde-
co maitetasuna ne-
re etxeco, nere aide
ta nere ezagun ar-
tian zabaldu al det?

*Esqueintza.*—Ale-
guinduco naiz libu-
ru on, papertxo ta
beste onelaco gau-
zac zabaltzen.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

## OGUEITABIGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*— Nere
eguinquizunac alde

batera utzi gabe, txolartietan gogora ecarrico ditut gaiztuac Jesus'en biyotzari ematen dizquioten naigabeac.

*Esqueintza.*—Naigabe oyec gozatzeco aleguiña eguitia esqueintzen det.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## OGUEITAIRUGARREN EGUNA

---

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera*—Biyotz otzecuac ematen di-

yoten minbera, eta besteascoen esquergabetasuna goguan euquico det.

*Esqueintza*—Jesus'en biyotzaren caltez eguiten diran gauz gaiztoen ordez nere eguintz onac esqueintzen dizquizut.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orryian.*

## OGUEITALAUGARREN EGUNA

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera*—Jaunaren escubico escuco

zauriyan sartuco naiz, eta bere Elizaren gain bere bedeincapenac ixurtzia escatuco diyot.

*Esqueintza.*—Nere escuetaco eguintzac, Erlijiyoaren aldez Jesus'en biyotzari esqueñico dizquiot.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

## OGUEITABOSGARREN EGUNA

---

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera*—Jaunaren ezquerreco es-

cuco zauriyan sartuco naiz, eta Erlijiyoaren caltian dabiltzanen arroqueriya azpiratzia escatuco diyot.

*Esqueintza.*—Nere eguintz gaiztoen barcapena escatuco diyot Jesus'en biyotz zuzenari.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

## OGUEITASEIGARREN EGUNA.

---

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera*—Jaunaren escubico oñeco

zauriyan sartuco naiz eta bide zuzen ta onetic ni ta nere etxeco guztiyac eramatia escatuco diyot.

*Esqueintza.*—Biyotz onaren billa nere ibillera oquerrac zuzenduco ditut.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191‘ garren orriyan.*

## OGUEITAZAZPIGARREN EGUNA.

---

*Eguneroco Otoitza, 189‘garren orriyan.*

*Jarduera.*—Jau-

naren ezquerreco oñeco zauriyan sartuco naiz, eta otsoaren aubian arquitzen dan bidegaldutaco arcumetxua ateratzia escatuco diyot.

*Esqueintza.*—Nere ibillera oquerrac negartuco ditut, eta beste norbait bide onera etortzia aleguinduco naiz.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191' garren orriyan.*

———

## OGUEITAZORTZIGARREN EGUNA.

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera*—Cristo'ren sayetzeco zauriyan atseden eguingo det, eta an, jaincozco biyotzian sarturic escatuco diyot ni zaindu ta sutzeco, nere biyotza beraren antzeco eguiñaz.

*Esqueintza.*—Jesus nere maitearen biyotz garbiyari nere goguaren es-

queintza eguingo diyot.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza 191'garren orriyan.*

OGUEITABEDERATZIGARREN EGUNA.

*Eguneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Margarita Alacoque onari gure Eroslea aguertu zitzayon Pasiyoco iru aguercayetan nere gogua jarrico det.

*Esqueintza.*—Bein ta bider Jesus'en sayetseco zauriyari

muñ eguingo diyot, eta Cristo'ren aguinduba munduban zabaltzia esqueintzen diyot.

*Iru Aita gure, iru Agur Mari eta iru Glori eta ondoren Otoitza, 191'garren orriyan.*

## OGUEITAMARGARREN EGUNA

*Euneroco Otoitza, 189'garren orriyan.*

*Jarduera.*—Nere biyotza, nere utseguiñ guztiyac aitortuaz, garbituco det; ondoren Jaun-artzian neroni ere esqueñico naiz, nero-

ni ta nere biyotza guztiya Jesus jaincozco biyotzarena izan dedin.

*Eguneroco otoitzaz ere illa bucatuco da, eguneroco esqueintzen esqueintza azquenic eguiñaz, emen dagoen otoitz onen bidez:*

### Otoitza.

Maitetasunezco garretan sututaco Jesus ezin obia! Zure biyotz gartsuaren laguntzaz nere anima aberastu dezun Jesus ona! Zeruetaco Erreguiñaren bidez aritzazu

ill ontan eguin dizquizudan esqueintz guztiyac, eta eguizu nere biyotza zuriaren antzera ibilli dedin orain ta beti. Alaxen.



# JESUS'EN BIYOTZAREN
## ERROSARIYOA.

Asieran esan diteque Loyola'co Inazio Santuac esan oi zuan

*Escaera.*

**Cristo'ren anima, santutu nazazu.**
**Cristo'ren gorpu-**

tza, zeruratu nazazu.

Cristo'ren odola, ase nazazu.

Cristo'ren sayetzeco ura, garbitu nazazu.

Cristo'ren Pasiyoa, indartu nazazu.

¡Nere Jesus ona! entzun zaidazu.

Zure zaurien barrenen ezcutatu nazazu.

Zugandic aldentzen etzaidazula utzi.

Etsai gaiztoagan-

dic babestu nazazu.

Nere eriotzaco garayan deitu zadazu.

Eta Zugana juan nadilla aguindu zadazu.

Santuaquin batian goratu zaitzadan.

Beticotasun guzietan. Alaxen.

(Irureun eguneco barcapenac escaer au eguiten dan aldi bacoitzeraco; zazpi urtecuac Meza edo Jaunartzearen ondorian eguiten danian, eta illean bein barcapen osoa.—IX'garren Pio'c.

Guero ogueitamar aldiz eguin diteque ondorengo

*Escaera laburra.*

Jesus'en Biyotz guziz gozoa, nic maitatzen zaitut.

Zu quixcaltzen zauden jaincozco maitasunean, nere biyotza irazequi ezazu.

Sei aldiz esan ondoren, edo seicote bacoitzaren ondoren, eguingo da beste escaera labur au:

Jesus guziz gozua,
Eguin ezazu nere biyotza zuriaren antzeco.

Ondoren iru aldiz esaten da:

Jetsemani'co baratzan, eta orain ere aldareco Sacramentu Santuan guizon esquergueac aztu-

ric zauzcaten Jesus guziz atsecabetua! maitatzen zaitugu.

Emen *Aita gure, Agur Mari* eta *Gloriya* errezatu ondoren, esango da azqueneco

### *Otoitza.*

Nere Jesus maitagarria! Zure gueyeguizco maitetasuna zenbateraño eldu dan icusiaz, arrituric nago. Zuc zerorrec, zeran guzia neri emateco, aldarea jarri dezu, zure gorputz eta odol guziz ederra esqueintzen dizquidatzula.

Niganaco maitetasunic bizienaz beteric dagoan zure Biyotz orrec berac ezpada, ain neurrigabeco maitetasunera, norc eraman zaitu? Jaincozco maitetasunez irazequitaco labe, Jesus'en Biyotz adoragarria! Zure zauri Sagraduan nere anima ar zazu, icaslecu orretan eracusten zayonaz, maitasun ain aundia aguertu didana maitatzen icasi dezan. Alaxen.

## *Jesus'en Biyotzaren Letaniya*

Jauna, erruqui zaite gutzaz.
Jesucristo, erruqui zaite gutzaz.
Jauna, erruqui zaite gutzaz.
Jesucristo, entzun zaiguzu.
Jesucristo, adi zaiguzu.
Zeruco Aita Jaungoicoa,
Munduaren Erosle Seme Jaungoicoa,
Espiritu Santu Jaungoicoa,
Irucoitz Santu eta Jaungoico bacar bat zerana,
Jesus'en Biyotz Jaungoi-

Erruquitu zaite gutzaz

coaren Semearequin bat eguiña,

Jesus'en Biyotz, Jaungoicotasunaren etxe santua,

Jesus'en Biyotz, Irucoitz guziz santuaren bizilecua,

Jesus'en Biyotz, Jaquintasun neurrigabea,

Jesus'en Biyotz, ontasunezco itxasoa,

Jesus'en Biyotz, erruquizco eser-lecua,

Jesus'en Biyotz, aberastasun azquengabea,

Jesus'en Biyotz, guzioc zure naitasunez bete gaituzuna,

Jesus'en Biyotz, gure paque ta elcartasuna,

Erruquitu zaite gutzaz

Jesus'en Biyotz, onbide guzien ixpillua,
Jesus'en Biyotz, maitatzen gaituzuna, eta maitatua izatia irabaziya dezuna,
Jesus'en Biyotz, zeruraño ura botatzen duen iturria,
Jesus'en Biyotz, zeruco Aitaren atseguintasunac zugan dituzuna,
Jesus'en Biyotz, Jaungoicoaren asarrea paquetzeco, gure pecatuen ordain-saria zerana,
Jesus'en Biyotz, gugatic atsecabez betea,
Jesus'en Biyotz, osoro naigabeturic Jetse-

Erruquitu zaite gutzaz

mani'co baratzan egon ziñana,

Jesus'en Biyotz, par-irriz gogaitua,

Jesus'en Biyotz, gure naitasunez zauritua,

Jesus'en Biyotz, lantzaz zulatua,

Jesus'en Biyotz, gurutzean odolustua,

Jesus'en Biyotz, gure pecatuen samintasunez zatitua,

Jesus'en Biyotz, esquergaiztoco ascoc egunero ere zure naitasunezco sacramentuan zauritua,

Erruquitu zaite gutzaz

Jesus'en Biyotz, pecatarien iguesIecua,

Jesus'en Biyotz, arga-

len indarra,
Jesus'en Biyotz, atsecabetuen poza,
Jesus'en Biyotz, zintzoen iraupena,
Jesus'en Biyotz, uste gueigo Zugan jartzen dutenen osasuna,
Jesus'en Biyotz, iltzen daudenen itxogopena
Jesus'en Biyotz, zure maitatzallien laguntza.
Jesus'en Biyotz, Santu guzien atseguintasuna,
Jesus'en Biyotz, inguratzen gaituzten zorigaiztoetan gure babeslecua,

Erruquitu zaite gutzaz

Munduco pecatuac quen-

tzen dituzun Jaungoicoaren bildotxa, barca zaiguzu, Jesus.

Munduco pecatuac quentzen dituzun Jaungoicoaren bildotxa, adi zaiguzu.

Munduco pecatuac quentzen dituzun Jaungoicoaren bildotxa, errugui zaite gutzaz.

Jesus, entzun zaiguzu.

Jesus, adi zaiguzu.

℣. Jesus, biyotz ixil eta ezin obia.

℟. Gure biyotzac, zurearen antzecuac eguin itzazu.

*Otoitza.*

Laguntza berri

bat eguiteagatic, zure Biyotzaren aberastasunac zure Elizari aguertu nai izan dizquiotzun Jesus gure Jauna. Jaincozco biyotz oni naitasuna naitasunaz ordaintzeco eta guizon esquergueac eguiten dizquioten calteac, guc esquer onez ordaindu ditzagun laguntza iguzu. Alaxen izan dedilla.

## JESUS'EN BIYOTZAREN
### bere eriyozco garayan Escaera.

Gure animac ainbeste maite dituzun Jesus erruquitsua! Zure Biyotz guziz santuaren eriyozco garai ta zure Ama guziz garbiaren naigabeacgatic, mundu guzian eriyozco garayan dauden eta gaur il bear duten pecatariac, zure odoletan garbitu ditzatzula escatzen dizut. Ala izan dedilla.

Eriyozco garayan egondaco Jesus'en Biyotza:

Iltzen daudenaz, erruqui zaite.



# Jesus'en Biyotzari

*¡O Biyotz Santu*
*Zerutarra,*
*Lurrean gure*
*Poz bacarra!*

1.

Ara cristauac
Nola dagoan
Jesus, zeruan
Bezela, emen;
Adoratzera
Bertatic zuzen
Guzioc guazen
Alic lenen.

2.

Maitagarri ta
Erruquitsua,
Jesus gozoa,
Beti zera;
Nere biyotza
Zure oñetan,
Nator benetan
Ematera.

3.

Bular zurean
Su txit bizia,
Irazequia
Dago gartan;
¿Zergatic dezu
Su au estali,
Ta ez quixcali
Lurra bertan?

4.

Bota lurrean
Su eder ori,
Laxter danontzat
Piztu dedin;
¿Ez aldaquizu
Gure biyotzac
Gaizto ta otzac
Dirala eguin?

5.

Zu izanican
Sugar berua,
¿Nola mundua
Dago otzac?
Izan ezazu
Zuc erruquia,
Biyotz maitia,
Guziontzat.

6.

Biyotz gozoa
Zugan dezuna,
Santutasuna
Jatorritic;
Iguzu, arren,
Laguntz ugari,
Zure iturri
Orretatic.

7.

Adisquide on
Berdingabea,
Nere Jabea
Daucat zugan;
Bizico banaiz
Zu zaitut bear,
¡Ai zenbat negar
Eguin dedan!

8.

Zurequin nago
Beti ondoen
Zure ondoren
Beti nabill:
Zurequin laxter
Biltzeagatic,
Orain bertatic
Nai nuque ill.



# JESUS'en BIYOTZARI

## BEDERATZI OSTIRALEN JARDUERA.

## LENBIZICO OSTIRALA.

### Damutasunezco eguintza.

Jesucristo nere Jauna, Zu nigatic il zera, ta nic zuretzaco bizi nai izan eztet: ain egoera errucarriyan ni ez iltzia eguin dezulaco nere biyotz guziz esquerrac ematen diz-

quizut, eta nere biyotzeco damutasun aundiz esaten dizut: Damu det, Jauna, zuri calte eguiña, nitzaz erruqui zaite! Olaxen guerta bedi.

Jesus'en biyotz ona, bederatzi ostiralen jarduera zure laguntzaz eguin nai nuque, nere oquerrac aitortubaz eta ill bacoitzeco lenbizico ostiralian Jauna artubaz, eta nere Jauna artzera nuan bacoitzian zeruetaco Amari ere laguntzia escatzen diyot. Olaxen.

Jesucristo gure Jaunaren bost zauriyac adoratzeco lenbizico ostiral ba-

coitzian esango dira bost *Aita gure*, *Agur Mari* ta *Gloria*, eta quero Elizaco biarren aldez, gaiztuen zuzentzeraco eta Purgatoriyoco animen aldez Jesus'en Biyotzari *Credo* bat esango zayo.

---

## BIGARREN OSTIRALA.

—

### Damułasunezco eguintza.

Jesucristo nere Jauna, zenbat maite nazun! Zuc bazequizun nic esquergaiztoz baizic enizula ordainduco zure naitasuna, eta ala ere gurutzetic eta aldaretic zu ainbes-

te aldiz zigorrez jua eta arantzez josiya icusi izan duenaren izotzezco biyotz ontara zure arguiyaren gozotasuna ugari eman dezu: zure aurrian lotsaturic, nere oquer-eguiñen barcapena escatzen dizut eta damutasunezco malcoac ixuriyaz diyot: Erruquiya, Jauna, damu det zuri calte eguiña, ¡nitzaz erruqui zaite! Olaxen.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

## IRUGARREN OSTIRALA.

—

### Damutasunezco eguintza.

Jesucristo nere Jauna, Calbariomendico bidian icusten zaitut, zure odol ederra ixuriyaz, buruba arantzez zulatuba ta gure gaiztaqueriyagatic gurutzia gañian daramazula. Nere gaiztaqueriyen barcapena escatzen dizut, eta zure neque ta oñazeacgatic eriyotz on bat izatia es-

curatu zaiguzu. Olaxen guerta bedi.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

---

## LAUGARREN OSTIRALA.

—

**Damutasunezco eguintza.**

Ene Jesus, Zuc nere aldez dezun naitasunari azquenic jarri nai izan eztiozunezquero nere damutasunac ere zuri calte eguin dizutelaco azquenic izan eztezala. Damu det, Jauna, nere biyotz guztiz; erruqui

zaite nitzaz eta nere eriyotzaco garayan zure laguntza izateco esquerra escatzen dizut. Olaxen guerta bedi.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

---

## BOSGARREN OSTIRALA.

—

### Damutasunezco eguintza.

Jesucristo nere Jauna, zuri eman zizquitzuten oñaze icaragarriyac gogoratzian nor ezta erruquitzen? Bañan, Jaun maitia, ¡gure

biyotz gogorra! zerbait erruquituarren ¿ez aldaquigu ba guregaiztaqueriz Aren min samiñac gueyagotzen ditugula? Jauna, nitzaz erruqui zaite eta eguizu nic eguin dizquitzudan caltien ordañac lenbailen zuri ematia. Olaxen.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

---

## SEIGARREN OSTIRALA.

### Damutasunezco eguintza.

Ene Jesucristo, zure semien biyo-

tzen barrenera sartzen zeranezquero, ongui badaquizu eguin dituen oquerracgatic neria damutuba dagoela; nere itxogopen osua Zugan jartzen det, eta uste det nere gaiztaqueriyen aunditasunac zure naitasuna nere aldez jarrico duela oquer eguiñac barcatzeco. Olaxen guerta bedi.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

---

## ZAZPIGARREN OSTIRALA.

—

### Damutasunezco eguintza.

Ene Jesus ona, gu irabazteco zenbat neque eraman biar izan zenduan! arantzezco buruco uztaya, zigorrez jua izana, irri-parrac, gurutzian il, nere lagunaz utziya arquituba eta zure naigabe ta miñac zure Amari ezin ezcutatu izana, bere biyotz ona atsecabez beteric zuria ere beriaren antzera jarriyaz.

Jauna, damu det zuri calte eguiña! Erruquizaite nitzaz eta zure nequien oñaziagatic nere oquer-eguiñen barcapena emaidazu. Olaxen guerta bedi.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

---

## ZORTZIGARREN OSTIRALA.

### Damutasunezco eguintza.

Jesucristo, Jauna, Zuc eztezu nai pecatariya iltzia, bide onera etortzia baizic; pecatari guzientzat ain erruca-

rriya zeran Jesus ona, zure ontasun aundiyaren biar naiz, Jauna, eta nere oquer eguiñen barcapena escatzen dizut, onen bidez ill arterraño beste gaiztaqueriric eguin gabe iritxi nadin. Olaxen guerta bedi.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*

---

## Bederatzigarren Ostirala.

### Damutasunezco eguintza.

Ene Jesucristo, lenbizico Ostiralen azquenecua dan on-

tan escatzen dizut zure biyotzeco eguitazco maitatzallia naizen ezagutzeco laguntza;zure Amaren bidez, pecatariyen bitartecuaren bidez, escatzen dizut, gaurtic nere bizitz ona nere oquer guztiyen ordaintzat izan dedilla. Olaxen guerta bedi.

*Beste guztiya lenbizico ostiralian bezela.*



# JESUS SACRAMENTATUBARI

*gure naitasuna aguertzeco bost aguertaldi.*

LENENGO AGUERTALDIYA.

Misteriyo maitagarri au jarri zigulaco Jesucristori esquerrac emanaz maitatu dezagun.

Jesus Sacramentatubaren Biyotz maitagarriya! Nere eguiñal guztiz maitatzen zaitut, eta ain gauz arrigarriya ipiñi zenduelaco es-

querrac ematen dizquitzut; eta esquer oyec gueyagotzeco munduco zintzuequin bat eguiten naiz, berenaquin bat nere biyotzaren naitasunac eguiñaz beticotasun guziyan zu goratu zaitzagun.

Eta maitatzen zaitut gañera Sacramentu ontan gaiztoengandic artzen dituzun calte ta naigabiac al detan bezela ordaindu ditzadan, batez ere eliz

ascotan cristau otzac bacartasun aundiyan uzten zaituztelaco. Nic oyen ordez maitatzen zaitut zure aldeco maitatzalle beroenenaquin nere gogo berua alcartubaz. Artu itzazu, Jesus ona, nere escaera gartsubac, bizitz ontan maitatubaz, bestian betico goratu zaitzadan. Olaxen guerta dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

BIGARREN AGUERTALDIYA.

Ainbeste aldiz artu degulaco, berarequin laguntz asco ere artubaz, gure Jesucristo maite dezagun.

**Jesus, nere biyotzaren erosle biguña! Eziñ esan ditezquen laguntzac zure escutic artu ditudalaco esquerrac ematen dizquitzut, eta batez ere nere barrenian ascotan, Zu ain aundia izan arren, sartu zeralaco escu zabal ta ugariz**

zure ontasunac ixuriyaz, zure biyotzeco ugaritasuna beñere aitu gabe. Biyotz ortatic datozquit zuc zuriaren antzeco izatera eguiten dizquidazun dei gozuac. Emen naucazu, ba, auzpezturic zure oñetan, zure gogo maitetsuari eztiot gueyago equin nai. Gure biyotzen gañ aguindu ezazu. Guziyac zure aguinduetara jarri ditezela, danoc zoriyan maitatu zai-

tzagun. Olaxen guerta dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

---

IRUGARREN AGUERTALDIYA.

Gaiztuengandic Sacramentu ontan artu dituen calte ta naigabien ordañez Jesucristo maite dezagun.

Biyotz gogorreco gaizquiñac Sacramentu ontan ainbeste calte eguindaco Jesus'en biyotz ona! Nere biyotz guziz maite zaitut, eta ainbeste calte nolabait ordaintzeco ze-

ruban dauden zoriondunai escatzen diet beren gorapenaz guizonen esquergabequeria ordaindu dezaten, nere bizitz osuan zu goratzen zaitudala.

Eguizu, Jauna, guizon guziyen biyotzac zuria maite dezaten eta beren gorapenac aingueruenena batu ditezen, zure Ama txit onaren bedeincapena irabazi dezaten. Azquenic, zu zerorri, zeru - lurren

Jaun ta Jabia, izango zera gure atseguiñ osua.

Ar itzazu, Betico Aita, zure Semiaren biyotzaren goguaz bat eguindaco gure escaerac, zurequin beticotasun guziyan bizi dalaco. Olaxen guerta dedilla.

*Aita gure. Agur Mari ta Gloriya.*

---

LAUGARREN AGUERTALDIYA.

Sacramentu ontan gaiztuengandic artu dituen calte ta atsecabien ordañez Jesucristo maite dezagun.

Jesus nere mai-

tiaren biyotz eziñ obia! Zure aunditasunaren aurrian aguertzen naiz miñez beteta, zure caltez eguiten dituzten oquerrac icusiyaz, batez ere pecatuban daudelaric zu artzera etortzen diranian Judas'en salqueriya baño ere aundiyagua eguiñaz. Esquergabeco biyotz oyen gogortasuna biguñdu ezazu; zuzendu itzazu; eta ez dezazula utzi iñolaz sinispendun gui-

zonic zure naira biar bezela aguertzen ezpada. Zure ta zure Ama maitiaren biyotzen izenian onela escatzen dizut. Laguntz ori lurrian eguiguzu, guero zoriya alcar icusi gaitzadan. Olaxen guerta dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

---

## DOSGARREN AGUERTALDIYA.

Eliz ascotan bere bidetic eztabiltzanengandic ain gaizqui artuba izaten zeran Jesucristo maitia.

**Jesus biyotz ona!**

Gure naitasunagatic Osti consagratuban gau ta egun egonarren guizonac aztuta zauzcate; munduco eliz guziyetan zu icustera gaur juan nai nuque, guizon guztien gaiztaqueriyen ordez neroni esqueñi, eta mundu ontan bizi diran zintzuen eta zeruco zoriondunen gorapenai bat eguin nere indar caxcarrac. Zure eramanquizun aundiya orain ezagu-

tzen det: Jesus maitia zu beti goguan ez euquiya damu det.

Emendic aurrera biyotz gartsuz zu maitatzeco laguntza emaidazu. Nere buruba arguitu ezazu, nere gogua berotu ezazu, nere biyotza garbitu ezazu, eta neri ta guizon guziyoi zu maitatzeco escarra emoiguzu, guero eunquiyen eunquiyetan zu beti goratzeco.

Eta zuc, Jaincuaren Ama, zure biyo-

tzeco garbitasunaz zure semiaren biyotzaren aldeco maitasun bat escuratu zaiguzu, berarequin bat eguiñaz nere biar guziyac bete ditzadan, eta poz eta atseguin aundiz bere Biyotzari, batez ere ill ontan lagundu dezayodan. Olaxen guerta dedilla.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

BIBLIOTECA P.P. BENEDICTINOS - LAZCANO

## ILL BACOITZECO

### *lenbizico ostiraleraco Jesus'en Biyotzaren izenian*

### JARDUERA.

---

Cristau gaiztuengandic artzen dituen atsecabe ta naigabiac nolabait arintzeco, eta bere naitasunari ordaintzeco, ill bacoitzeco lenbizico ostirala Jesus'en Biyotzari esqueñiya dago. Jesus berac jarduera au eracutsi ziyon Margarita Maria emacume onari zenbateraño nai zuen bere biyotza egun ortan,

batez ere, ostiralian, goratuba izatia, bere gogo au betetzen zutenai esquer ta laguntz ugariyac, bizitz eta eriyotzan esqueñiyaz azquenic zoriona irabazteco. Beraz, Biyotz Sagradubaren maitatzalliac al dituzten naitasunezco aguerquetac eguitera biartubac daude, eta au eguiten badute, beren zorioneraco laguntz ugariyac escuratuco dituzte.

Egunero icusten degunac aguertzen digu, Jesus'en Biyotz maitagarriyari naitasuna diyona onbidian sartzen dala, eta bide zuzen ortan il arteraño jarraitzen duala.

Ona, emen, illeroco lenbizico ostiralian Jesus'en Biyotz maitagarriya goratzeco, eguin guenezaquena:

Lenbizi: Goiz-goizetic, Jesus'en Biyotz maitagarriyari egun guztico qure eguintzac esqueñi, bere atsecabe ta miñac arintzeco asmua eta alde guziyetara asmo eder au zabaltzeco gogua bere gain artubaz.

2'garren: Pecatubac aitortzera eta Jaun-artzera juanaz, azquenengo au, batez ere, biyotz guziz artubaz, eta Jesus'i eguiten dizquiyoten caltiac ordaintzeco asmotan. Eta Jauna

eziñ artu balitz, urrengo igande arte Jaun-artzia utzi.

3'garren: Meza entzutera aguertu, eta al bada, Biyotz Sagradubaren aurrian ematen dan Meza entzun, jaincozco Biyotzaren maitatzalliac goguan artubaz, eta egun artaco eguintz guztiyac beraren gorapen gueyagoraco esqueñiyaz, bere aguintia mundu guztiyan zabaldu dedin.

4'garren: Sacramentura aguertaldi bat eguin, Jesus'en Biyotza biziric eta maitetasunez beteric antxen dagoalaco.

5'garren: Jesus'en Bi-

yotzaren naigabiac arindu biar ditugu, bacoitzac dituen eguinquizunac beste egunetan baño obeto equiñaz, eta biartsuren bati laguntza emanaz.

6'garren: Artsaldeco otoitza eguitian, egun guztico eguintzac Jesus'en Biyotzari esqueñico dizca, eta escatuco dio mundu ontan maitatuco duen semiac izateco laguntza, guero ere zeruban icusi dezaten.

7'garren: Egunaren txolarte batian esan dezaque ondorengo

*Otoitza.*

## I. Jesus'en Biyotz

maitagarriya, aldareco Sacramentu ontan nic maite zaitut, ortxen gureganadezun naitasuna beti eracusten zaudelaco. Esquerrac ematen dizquizut, Sacramentu ori ipiñi zenduelaco, mai bat ere bera guc artzeco jarriyaz. Jesus'en Biyotz maitagarriya, ar ezazu zure barrenen nere biyotza eta zure su gartsubaz berotu ezazu, antxen nere azqueneco egun ar-

te quixcaldu dedin!

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

Jesus'en Biyotz gozua egunetic egunera gueyago maitatzia eguizu.

II. Aldareco Sacramentu ortan maitatzen zaitut guizon guziyen biyotzac zuriarengana bildu nayean zaudelaco, zure amaigabeco ur ederrac eta laguntzat berai emanaz. Sacramentu ontan nerequin ainbeste aldiz batu zeralaco

zure naitasuna aguertubaz, esquerrac ematen dizquizut, eta azquenic zorioneco bidia eracustia escatzen dizut.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

Jesus'en biyotz.....

III. Aldareco Sacramentu ortan gaizquin ascoc zu maitatu ezarren, nic maitatzen zaitut, eta berac eguin dizquitzuten naigabiac eta miñac arindu nai dizquitzut. Zu

goratzera natorquizu, eta uste det biyotz guziz ortxen zaudela, eta Sacramentu ortan maitatzen zaitut, escatubaz bide oquerreco illunpetan arquitzen diran ainbeste guizoni beren gogua arguitu dizayezun Sacramentu onen eguiya ezagutzeco.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

Jesus'en biyotz.....

IV. Aldareco Sacramentu ortan

maitatzen zaitut or-
txe bertan guizon
ascoc biar bezela
maitatzen etzaituz-
telaco, ain beste atse-
cabe zuri emanaz.
Oyen ordez zure
maitatzallien biyotz
beraa esqueintzen
dizut garbitasunez
beteric zu artzen zai-
tuztelaco; nic ere
oyenaquin bat nere
biyotza eguiten det,
eta nere biyotz eta
zure maitatzalle gu-
ziyenetan zure al-
de euqui biar guiñi-
zuquen maitetasu-

na betico jarri zaiguzu.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

Jesus'en biyotz.....

V. Aldareco Sacramentu ortan Jesus' en Biyotz ezin obia nic maitatzen zaitut ainbeste ordutan egunez ta gabez iñoren aguertaldi bat gabe ortxen zaudelaco. Ar ezazu, Biyotz ona, nere gogua, eta beraren bidez mundu guztico eliz denac nai nituzque ibilli nere egui-

pen onen bidez guizon guztiyen biyotzac zu icustera ta zu maitatzera erámateco. Bañan au ezin ditequenezquero, ementxe maitatzen zaitut, zure onduan zeruban arquitzen diran ainguеruben gorapenac nere gogora alcartubaz.

*Aita gure, Agur Mari ta Gloriya.*

Jesus'en biyotz.....

OSTEGUN-OSTIRALETARACO

**Pasiyoco Erlojuba.**

---

OSTEGUNA.

*Artsaldeco seyetan*. Jesus'ec zapi bat artubaz eta ontzi batera ura botiaz, bere icasleai oñac garbitzen dizquie, guero legortubaz, eta azquenic muñ emanaz. Orixen bai apaltasuna!

*Zazpiyetan*. Sacramentu txit santua

ipintzen du, oguiya ta ardua bere gorputz ta odol biurtzeco indarra apaizai emanaz. Orixen bai naitasuna!

*Zortziyetan.* Getsemani'co baratzara dijua; eta bere atsecabe ta oñazeac izanarren, bai ixilla dala bere otoitzetan!

*Bederatziyetan.* Judas'gatic lotzen dute; bere icasliac alde eguin zioten: Eta zuc ere ez al diozu beñere alde eguin?

*Amarretan.* Anas' en etxera daramate. Jerusalen'en gaur eguin duen sarrerac ez du Erramuigandian eguindaco sarreraren antzic! Izugarrizco masalleco bat ematen diyote!

OSTIRALA.

*Goizeco lauetan.* Gau ontan Caifas' en etxian lotsagarriqueri asco eraman ditu; Pedro'ac iru aldiz ucatu du; orain guziyac oju

ta marruca bere caltez daude, ill eguin biar dutela esanaz. Ori esquergabequeriya!

*Bostetan*. Pilatos' enera daramate. Calietan denac berari equiten diote, eta amorraturic salatzen dute!

*Seiretan*. Herodes'i eracusten diote: ero bat balitz bezela soñeco zuri bat jartzen diote jaquintasuna bera izanarren!

*Zazpiyetan*. Pila-

tos'ec Barrabas'en aldamenian jartzen du: eta erriyac gaizquin ori nayago du.

*Zortziyetan.* Arri bati loturic daucate, zigorrez bere aragui guztiyac zatituric.

*Bederatziyetan.* Buruban arantzezco uztai bat sartzen diote. Zer atsecabia!

*Amarretan.* Pilatos'ec erriyaren aurrian jartzen du, esanaz: «Ecce-Homo» ona emen guizona; eta erricuac gurutz-

iltzatua izan dedilla escatzen dute; epalle bildurtiyac baimena ematen du eta iltzia erabaquitzen du.

*Amaiquetan.* Gurutzia bizcarrian dubela, Calbario mendi alderuntz abitzen da. ¡Ayec erortze icaragarriyac! Bere Ama arquitzen duanian ¡ayec naigabiac! Jarraitzen diyoten emacumiei bai itz gozuac esaten dizcatela!

*Amabiyetan.* Eran-

tzi ondoren, Gurutzian josten dute. Zer oñaziac! zer miñac!

*Ordu batian.* Bere gaizquillien aldez escatzen du, lapur onari bere zoriyona esqueintzen diyo, ta amatzat bere Ama ematen digu. Zer ontasuna!

*Ordu bitan.* Goico Jaunari bere espac aguertzen dizca; egarri da, eta beazuna ozpiñez nasturic ematen diyote. Ondoren... gu-

ziya bucatu da.

*Iruretan.* Betico Aitari espirituba ematen diyo, nere naitasunagatic eriyotza artubaz.—Gurutzian besuac jarriyaz bost Aita gure esan itzazu.

*Lauretan.* Gurutzetic jexten dute. Zer negarrac! Icusqueta negargarriya!

*Bostetan.* Beguira zayozu Jesus'i bere Amaren besoetan; eta obiratzen dutela icusiyaz, zu-

re biyotza icusqueta negargarri ortan bigundu ezazu.

---

### *Escaera, eta Gonsagraziyoco Eguinza.*

Ene Jesus! Aguertu didazun ezin esan alaco maitetasuna eta Zure Biyotz maitagarriyac beti eracusten dizquidan icasquizunac gogoratuaz, zure oñetan auzpezturic umilqui laguntza escatzen dizut, bazure icasle leyal batec bezela, ezagutu

eta maitatuaz, ematen dizquiguzun zoriyon ugariyac iritxi ditzadan. Jesus guziz maitea! txit biartsua naiz, eta escalia aberatsac eman bear diyonaren biar dan bezela, zure biar naizela beguira zazu. ¡Ezer ez daquidana naizela, eta nere jaquiñeza arguitzeco zure jaincozco eracutsaldien biarra daucadala beguira! Argalen indarra! indarric batere gabia eta

erori ez nadiñ zure biar naizela begui-ra. Biyotz Sagradu-ba! Izan zaite nere biar guziyen osaga-rriya; nere begui-yen arguiya; nere pausoen indarra; nere gaitzen senda-gaya, eta nere estu-tasunetan laguntza. Nere biyotz gaxuac guziya zugandic us-te du. Zuc poztu zenduan, eta zure Ebanjeliyoan asco-tan esan ziñuzen itz eztitsu oyez zugaan deitu ziñion: *Atozte*

*nigana... icasi zazute nigandic... esca ezazute... deitu ezazute...* Gaur zure Biyotzaren atietara nator, eta deitu, escatu eta itxodoten det. Jauna! eguizco asmo erabaquiyaz, gogo osoz nere biyotza ematen dizut; artu ezazu, eta lurrian ontzeco, eta betico zorionecua zeruban izateco nic biar dedala daquizuna, ordañez eman zadazu. Alaxen.

Emen iru Aita gure, Agur

Mari eta Gloria Patri errezatuco dira, Biyotz Sagraduac, Alacoque'co Margarita Maria emacume onari aguertzian zeuzcan gurutze, uztai eta lantzaz eguindaco zauriyaren oroipenian.

---

**Jesus'ec bere Biyotzaren maitatzalliai eguin dizquiyen**

AGUINDUAC.

Lenbizicoa: Beren bizibideco eguinquizuñac betetzeco, laguntz ugariyac emango dizquiyet.

Bigarrena: Beren etxietan paquia jarrico det.

Irugarrena: Be-

ren atsecabietan poztuco ditut.

Laugarrena: Beren bizitz guziyan eta eriyozco gararayan eguizco egonlecua izango naitzaye.

Bosgarrena: Beren languintz guziyen gañera bedeincapen ugariyac ixurico ditut.

Seigarrena: Pecatariyac nere Biyotzian erruquiyaren iturri eta itxaso ondogabia arquituco dute.

Zazpigarrena: Deboziyuan epel dauden animac berotuco ditut.

Zortzigarrena: Deboziyuan bero daudenac. santutasunic goyenera igoco dira.

Bederatzigarrena: Nere Biyotza goratzen duten etxiac, bedeincatuco ditut.

Amargarrena: Apaizai biyotzic gogorrenac biguñtzeco doaya emango diyet.

Amaicagarrena:

Jarduer-au zabaltzen duten guziyen izenac, nere Biyotzean ezarrico ditut.

Amabigarrena: Illaren lenbizico bederatzi ostiral jarraituetan arret andiz Jaun-artzen dutenac, Jaungoicuaren laguntzan iltzia itxodon lezateque; eta oyec, Sacramentu santuac artu gabe ilco eztiran uste osua iduqui bezate.



## Jesus'en Biyotz Sagradubari

**Mariyaren Biyotz cutsucabiaren bitartez pamili cristabaren esqueinzaldiya.**

¡Jesus'en jaincozco Biyotza! emen gauzcatzu belaunicaturic Zure aurrian, eguin dizquigutzun laguntza guziyacgatic esquer onez beteric, eta zu·

ganaco ontasun esan eziñ arenganaco maitetasunez suturic.

1689'garren urteco Garagarrillaren 17'an Zuc eguindaco deyari erantzun, eta zure Biyotz maitagarriyaren aguindualdiya gure erriyan lenbailen jartzeco eguiñal eguin nairic, esqueintzen gatzaizquitzu gure etxeco guziyac, Jesus, Mariyaren Biyotz cutsugabiaren, eta Jose Santu, be-

raren senar txit garbiyaren bitartez.

Iraun bezate beti gure etxian, Nazareth'coan bezela, onbideac, sinismenac, maitetasunac, laneraco goguac, otoitzac, zintzotasun eta paqueac. Gure bizitzaren eracusbidea eta gure gauzen zaitzalle ernaya zerori izan zaite.

Gure ez-biarrac, gure pozac eta gure etxe - bizitzaco gora-bera guziyac esqueintzen dizqui-

tzugu; eta bertaco biziyen eta ildacuen gañera bedeincapen bereziyac ixuri ditzazula escatzen dizugu: guziyac, zure jaincozco Biyotzaren babesean jartzen ditugu, eta oyetacoren batec zure maitasunari esquer txarrez erantzunaz atsecabetuco bazindu, oquer orren zorra guc eraman dezagula. Zure Biyotz Sagradubagatic, Jesus, ordaintz au ontzat ar

zazu, eta artzaz errruqui zaite.

Orobat, munduco guziyacgatic escatzen dizugu: zain zazu aurtasuna; gaztien indarra, zarren euscaya, alargunen laguntza, umezurtzen aita, oatuben eta iltzen daudenen gozacaya izan zaite.

Eta guziyaz gañ, maitetasunaren ondogabeco itxaso Jesus, eriyozco garayan lagundu zaiguzu ¡arren! Garai artan zure jaincozco

Biyotzaren aldez a-
re ta gueyago es-
tutu gaitzazu, eta
zure Ama Mariya-
renaren txit garbi-
yarequin, gure gor-
de-lecu eta atsede-
na izan zaite, atze-
neco asnasea ema-
ten degunean gure
arteco bacoitzac ar-
qui ditzan, Jesus,
bere aide guziyac
zeruban zure biyotz
Sagradubarequin.
Alaxen.

BIBLIOTECA
P. BENEDICTINOS



# Jesus'en Biyotzari

## BEDERATZIURRENA.

## LENENGO EGUNA.

*Gurutze santuaren...*

DAMUTASUNEZCO EGUINTZA.

Jaincozco Sacramentu ontan bizi-ric eta guganaco

maitetasunez irazequiric zauden Jesus'en Biyotz guziz gozua! Gure oquerren barcapena ta guganaco erruquia escatuaz, zure aurrian emen gauzcatzu. ¡Jesus ona! Zu aiñ ona zeralaco eta onelaco esquergabequeriric eguin biar etzaizuquelaco, Zuri calte eguiña damu degu. Zure eguintz onac ezagutzeco arguiya iguzu, gure biyotz gaxoen bizitza izan

ditezen. Onelaxen guerta dedilla.

EGUNEROCO OTOITZA.

Irucoitz santubac esquer ugariyaz betetaco Jesus maitiaren jaincozco Biyotza! Zuriaren antzeco biyotz bat emaidazu eta, gañera, bederatziurren ontan escatzen dizudan laguntza, Jaincuaren gorapen gueyagoraco eta nere animaren oneraco baldin bada. Orrelaxen guerta dedilla.

## Lenbizico Eguneraco Otoitza.

Gure biyotzen agortasun ta oztasuna zure naitasunez sutu ta berotzia nai dezun Jesus'en Biyotz eziñ obia! Neriaren oquerrac quendu itzazu, zure naitasunaren garretan erre dedin.

Zure caltez eguin ditudan oquerrac ordaintzeco, esquerra emaidazu eta, gañera, bederatziurren ontan escatzen dizudan lagun-

tza, Jaincuaren gorapen gueyagoraco eta nere oneraco baldin bada. Alaxen guerta dedilla.

Emen, Biyotz Sagradubaren iru aguercayaz, gurutze, arantzezco buruco uztaya ta lantzazco zauriyaz, iru Aita gure eta iru Agur Mari errezatuco dira.

Eta ondoren, egunero Betico Aitari emen datorren otoitz au eguingo zayo:

*Otoitza.*

Betico Aita! Zure aunditasunaren o-

ñetara Jesus'en Biyotzaren bitartez irixten naiz; onen bidez, maite etzaituzten guizonen ordez, nic maite zaitut; zure jaincozco Semiaren odolez irabazitaco anima guziyac esqueintzen dizquitzut, eta guztiyac bideratzia escatzen dizut: eztezazula nai luzaroago utzi, nere Jesus ona, zu ezagutu gabe gueldit'zia. Alaxen guerta dedilla.

Jesus'en Biyotz Sagra-

dubaren bidez escaera eguin ondoren bucatuco da onela:

### *Otoitza.*

Jesus'en Biyotz maitagarriya! Maitetasun irazequiz maitatzia irabaziya daucazun biyotz atseguingarriya! Jesus'en biyotz gozua! Nere biyotz argalaren naitasun guztiz maite zaitut. Zure inguruban arquitzen diran aingueru guztiyen gorapenac eta zure Ama

maitiaren Biyotzac esqueñi ditzaizquitzuen guztiyac esqueintzen dizquitzut. Alaxen.

## BIGARREN EGUNA.

Guziya lenbizizico egunian bezela, bañan bigarren otoitza aldatubaz.

Jesus'en biyotz atseguingarriya, gu Jaincuagana eta Jaincua guregana eramaten gaituen zeruco atia! Gure goguen aurrian zaude, gure ordez Be-

**tico Aitari zuc itzeguiñaz, bere bedeincapenac iritxi ditzagun.**

Zure caltez... 301'garren orriyan.

IRUGARREN EGUNA.

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan irugarren otoitza aldatubaz.

**Jesus'en Biyotz errucarriya! Nere osotasun ta garbitasuneraco eguizu zure bide zuzen eta onac jarraitu ditzadan, munduco gauz gaiztuen egarriya**

asetzen duen zugandico onbidien iturritic edan dezadan.

Zure caltez... 301'garren orriyan.

LAUGARREN EGUNA.

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan laugarren otoitza aldatubaz.

Jesus'en Biyotz txit garbiya! Eguizu nic zu icusi zaitzadan, otoitzaren bidez nere biyotza zuriaren antzeco izan dedin eguite ta

gorapenetan, itz eta eguintzetan.

Zure caltez... 301'garren orriyan.

BOSGARREN EGUNA.

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan bosgarren otoitza aldatubaz.

Gure eguintz guztiyac zuzentzen dituzun Jesus'en biyotz gozua! Nic, neriac biar bezelacuac ez izanarren, esqueintzen dizquitzut, zuc nere utseguiñac zuzendubaz, Jaincuaren

**aurrian aguertu ditzadan.**

Zure caltez... 301'garren orriyan.

## SEIGARREN EGUNA

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan seigarren otoitza aldatubaz.

**Jesus'en Biyotz zabala, nere gogo, nere almen ta zentzuquizunaquin barrenen bizitzia aguintzen didazun eliza! Paquezco eliz eder ortan arquitu detan atseguin, gozotasun ta paquia-**

gatic esquerrac ematen dizquizut, eta bertan betico pozez atsedengo det.

Zure caltez... 301'garren orriyan.

ZAZPIGARREN EGUNA.

---

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan zazpigarren otoitza aldatubaz.

Jesus'en Biyotz beraa! Betico Aitac esan zigun gure otoitz guztiyac entzungo dituzula esanaz: «Nere seme maite Jesus'en Biyotzaz escatu zaida-

zu: Biyotz onegatic entzungo dizut eta escatzen didazun guztiya escuratuco dezu!» Zure bidez Betico zure Aitari nere escaerac egui-ten dizquiot, nai de-tan onbide guztiya iristeco.

Zure caltez... 301'garren orriyan.

ZORTZIGARREN EGUNA.

---

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan zortzigarren otoitza aldatubaz.

Jesus'en Biyotz ongarriya! Guizo-

nen biyotz guztiyac zure naitasunaren garretan icusi nai dituzun Biyotz ona. Zure naitasunezco garrac artuaz beti bizi nai det, beste guziyenac piztubaz bide onetic ibilli ditezen.

Zure caltez... 301'garren orriyan.

BEDERATZIGARREN EGUNA.

Guziya lenbizico egunian bezela, bañan bederatzigarren otoitza aldatubaz.

Jesus'en Biyotz minberatuba! Gure

biyotzaren gogorqueriya aguertarazteco ta gugatic artu izan zinduen atsecabe ta miñac eracusteco, azaldu zizquigutzun gurutze, buruco arantzezco uztai ta lantzarenzauriyaz, oñaze icaragarri ayec eramanquizun aundiz artubaz!

## *Irucoitz edo Trinidade txit Santuari* JARDUERA.

### Trisajiyo Ainguerutarra.

# Santu, Santu, Santu, martiztiyen Jaun - Jaungoicua: Zure aintzaz lurra betia dago: aintza Aitari, aintza Semiari, aintza Espiritu Santubari.

(XIV'garren Clemente'c au errezatzen dutenai barcapen ugariyac eman zizquiyen.)

## Irucoitz Santubari Trisajiyua.

*Gurutze Santubaren...*

DAMUTASUNEZCO EGUINTZA.

Irucoitz maitagarriya, Aita Seme ta Espiritu santua, Jainco bacar bat iru personetan: biyotz guztiz maite zaitut; zugan sinisten eta itxodoten det; gauz guztiyac baño gueyago nai zaitut; zuri calte eguiña damu det; damu det Aita guzialtsuba; damu det Seme biyotz biguña;

damu det Espiritu Santu maitalia. Irucoitz ain santua gueyago nic ez caltetzea indazu; zintzo guziyequin orain zu goratubaz, guero ere aingueru ta goiaingueruaquin goratu zaitzadan. Alaxen.

### AITARI OTOITZA.

Betico Aita, on guztiyen asiera ta iturriya, asieric gabia, zorion guziyen jatorriya: sortutaco gauz guztiyen

gañ: zu icusiyaz, nere buruba zure edertasunetan galtzen da. Aingueru ta Goiainguerubai elcartuaz nic zure indarra goratzia idazu.

Aita guria... eta bederatzi aldiz:

℣. Santu, Santu, Santu, martiztiyen Jaun Jaungoicua: zure aintzaz zerulurrac betiac daude.

℟. ¡Aintza Aitari, aintza Semiari, ain-

tza Espiritu Santubari!

SEMIARI OTOITZA.

Seme jaincotar, guziyan Aitaren antzecua, eziñ ucatu ditequean eguiya, guizonaren zorion atseguingarri ta bide zuzena: zure ontasun guziyacgatic, goratzen zaitut. Nere Jesus maitia! zure bidiac itzez bacarric jarraitu ditut. Bañan bide ona artu nayaz zerutar indardunei nere ao-

tza bat eguiñaz, esango det:

Aita guria.....

## ESPIRITU SANTUARI OTOITZA.

Aita ta Semiagandic zatozen Espiritu maitagarriya! zerezco maitetasuna, laguntz guztiyen sustraya, gozotasun guziyen iturriya, eta ala ere, ain gutxi maitatuba! Aingueru ta goiainguerubac bederic maite zaituzte. ¡Norc iritxi lezaquean espiritu oyec

zeruban maitatzen zaituzten bezela, guizonac ere lur ontan maitatzea! Utzi zazu, ba, oyei batubaz, nic ere esan dezadan:

Aita guria.....

Jaungoico santuba, Jaungoico indartsuba, Jaungoico illezcorra: gaitz guztiyetatic aldendu gaitzazu, Jauna.

(Iru aldiz esaten da.)

℣. Aita ta Semia Espiritu Santuarequin bedeincatù ditzagun.

℟. Goratu ditzagun beticotasun guziyan.

*Otoitza.*

Guzialdun eta betico Jaungoicua; zure mendecuai sinismenaren aitorpenian betico Irucoitzaren goratasuna eracutsi ziezun, eta bai ere bere batasunian daucan indar eta almena: naigabe ta atsecabe guziyetatic aldendu gaitzatzu. Cristo gure Jaunaren izenez. Alaxen.

ESQUEINTZAC.

I. Esqueñi ditzaizcagun Irucoitz txit santuari Jesucristoren irabazpenac, gugatic baratzan ixuri zuen odolaz: ta bere bidez gure oquer-eguiñen barcapena escatu dezagun.

Aita guria, Agur Mariya ta Gloriya.

II. Esqueñi ditzaizcagun Irucoitz txit santuari Jesucristoren irabazpenac, gugatic gurutzian

artutaco eriyotzagatic; eta bere bidez gure oquer eguiñen barcapena escatu dezagun.

Aita guria, Agur Mariya ta Gloriya.

III. Esqueñi ditzaizcagun Irucoitz txit santuari Jesucristoren irabazpenac, zerutic lurrera araguiya artubaz eta gurutze batian gugatic eriyotza artubaz eracutsi zigun maitasunagatic; eta bere bidez escatu dezagun gure eriyo-

tzaren ondoren betico zorionera eraman gaitzala.

Aita guria, Agur Mariya, ta Gloriya.

(IX'garren Pio'c esqueintz oyec eguiten dituztenai barcapen ugariyac eman dizquie.)

*Jaunaren Aintza gueyagoratzeco.*

BIBLIOTECA
P.P. BENEDICTINOS.-L...

# ARQUI-BIDIA.

Orriac.

Cristau onaren goiza. . . . 9
Goizeco otoitza. . . . . 10
Adoraziozco Eguintza. . . 11
Etxetic ateratzean. . . . 11
Elizan sartzean . . . . . 12
Ur bedeincatua artzean. . 12
Jesus Sacramentatuaren aurrean arquitzean . . . 12
Gaxo batentzat Elizacuac igarotzean. . . . . . 13
Lanen bati asiera ematian. 13
Erlejuac ordua jotzean . . 14
Pecatuan erortzeco zoriyan arquitzean. . . . . . 14
Pecatuan erortzean . . . 15
Ondoezic arquitzen danian. 15
Norbaitec gaitz eguin digunian . . . . . . . . 16
Mayaren bedeincapena . . 16
Bazcal-ondoan Jaunari eman biar zaizcan esquerrac . 17
Ezquillac jotzean otoitza . 17
Otoitza. . . . . . . . 19
Ama Birjiñaren agurra . . 19
Oyeratzean . . . . . . 20
Maria txit Santuari otoitza. 21

Orriac.

Jesus gure Erosleari otoitza 22
Jesus'en Jaincozco Biotzari Otoitza . . . . . . . . . 23
Erroque Santuari Otoitza . 24
Aingueru Zaitzalle Santuari Otoitza . . . . . . . 26
Izeneco Santuari Otoitza. . 27
Purgatorioco animen aldez otoitza . . . . . . . . . 27
Jose Santuari Otoitza. . . 28
Carmengo Ama Birjiñari otoitza . . . . . . . . . 30
Sinispen, Itxodopen ta Maitetasunezco Eguintzac. . 32
Paduaco Antonio Santuari Otoitza . . . . . . . . . 33
Meza Santua. . . . . . . 35
Mezaren esqueintza . . . 78
Meza Santuaren ondorengo otoitza . . . . . . . . . 79
Gurutze-bide edo calbarioco eguipen Santua. . . 83
Pecatuen aitortze ta Jaunartzeco bidea. . . . . . 99
Pecatuen gogoratze-ondorengo eta aitortze-aurreco otoitza . . . . . . . 113
Aitortze-ondorengo otoitza. 118
Jaun'artze-aurreco Jaun-

Orriac.

goico gure Jaunari otoitza . . . . . . . . . 121
Jesucristo gure Jaunari otoitza. . . . . . . . . 122
Espiritu Santuari otoitza. . 124
Jaun'artze ondorengo otoitza. . . . . . . . . . 126
Jaun'artze-ondorengo esquerrac emateco Tomas Santu eracuslearen otoitza. . . . . . . . . . 128
Bezperac . . . . . . . . 132
Errosariyo santuba . . . 164
Astelen - ostegunetaraco Atseguiñezco Misteriyoac. 167
Astearte - ostiraletaraco Atsecabezco Misteriyoac . 173
Igande, azteazquen larunbateraco Zorionezco Misteriyoac. . . . . . . . 179
Ama Birjiñaren Letaniya . 185
Jesus'en Biyotzari esqueñitaco Garragarrilla. . . 189
Jesus'en Biyotzaren Errosariyoa . . . . . . . . 222
Jesus'en Biyotzaren Letaniya . . . . . . . . 228
Jesus'en Biyotzaren bere eriyozco garayan Escae-

Orriac.

ra. . . . . . . . . . . 235
Jesus'en Biyotzari cantac. 236
Jesus'en Biyotzari bederatzi ostiralen jarduera. . 238
Jesus Sacramentatuari gure naitasuna aguertzeco bost aguertaldi . . . . 251
Ill bacoitzeco lenbizico ostiraleraco Jesus'en Biyotzaren izenian jarduera. 264
Ostegun-ostiraletaraco Pasiyoco Erlojuba. . . . 276
Escaera, eta Consagraziyoco Eguintza . . . . . 284
Jesus'ec bere Biyotzaren maitatzalliai eguin dizquiyen aguinduac. . . 288
Jesus'en Biyotz Sagraduari Mariyaren biyotzaren bitartez pamili cristabaren esqueintz-aldiya . . 292
Jesus'en Biyotzaren bederatziurrena. . . . . . 298
Irucoitz Santuari Jarduera 314
Irucoitz Santubari Trisajiyua . . . . . . . . 315